



## Zahartzen ari gara

60 urte edo gehiagokoen adin tartearen %21,07 hazi da 18 urtetan / 2-7



**Altsasun batetik bestera oinez mugitzea zenbat denbora kostatzen den azaldu du udalak / 11**

**Hizkuntza ohiturak aldatzeko hartutako konpromisoen betetze maila aztertze eguna da / 9**

**Kultur eskaintzan euskararen presentzia handitzea eskatu dute hainbat altsasuarrek / 10**

**Irurtzongo Udalak erosketak herrian egin daitezkeen sustatzeko 1.500 bonu banatuko ditu / 9**

**Iskiza Nafarroako Gimnasia Erritmikoko txapelketa da eta Espainiakoan lan ederra egin du / 13**

**Erkudengo Ama Abesbatzak 40 urte bete ditu, eta abenduaren 16an ospatuko du / 21**

**Ainhoa Ramirez de Alda altsasuarrek 'Galtzerdi erdi' ipuin ilustratua kaleratu du / 23**



**Markos Beraza irintarrak Espainiako Senior B mailako Enduro Txapelketa irabazi du / 14-15**

# "Gazteak Arakilen gelditzeko nahi hori agerikoa da"

**OIHANA OLABERRIA JAKA** ARAKILGO ALKATEA

Mila biztanleetara iristeko 10 biztanleren faltan dago Arakil. Langa gaindituta, dirulaguntza gehiago jasoko lituzke. Azken 20 urteetan Arakilek 79 herritar irabazi ditu

**Alfredo A. I. eta Maider B. G.** ARAKIL Sakanako udal batek populazioa irabazi eta horrek administrazioan eragina izan zuen azken aldia 2006an izan zen, Arbizuk mila biztanleko langa gainditu zuenean. Gauza bera gertatu zen Lakuntzarekin 2001ean, mila herritarreko langa pasa zuela. Gaur egun, antzeko egoeran dago Arakil.

Joan den urteko datuen arabera 36 biztanle berri izanez gero milara iritsiko litzateke, 2021ean Arakilek 966 biztanle zituelako. Duela 20 urte, 866 arakildar ziren. Beraz, bi hamarkada ondoren, 79 herritar gehiago bizi dira ibarrean, eta %9ko hazkundea izan du. Demografia datuek diotenez, 2021ean 6 jaiotza izan ziren Arakilen, 12 heriotza eta immigrazio kopurua 54koa izan zen. Horretaz aparte, 44 emigratu izan ziren. Adina kontuan hartuta, 20 urtetik beherako arakildarrak %18,63 dira, 20tik 59 urtera artekoak %52,38 eta 60 urtetik gorakoak %28,99. Oihana Olaberria Jaka pozik dago demografia datuekin. **Arakilen 2000 biztanle izatera iritsiko al zarete?**

Astero begiratzen dut errolda eta hor gabiltza. 2021Ean 36 falta zitzaizkigun, baina gaur egun, askoz ere gertuago gaude: 990 biztanle inguru gaude une honetan. Milara iristea erronka da, ea lortzen dugun.

**Mila biztanlera iristen bazarete, Arakilgo Udalean zazpi zinegotzi izatetik bederatzira pasako zinatekete.**

Eta horretaz aparte zenbait gauza aldatuko lirateke, batez ere dirulaguntzena, handiagoak dira. Administrazioak herri bakoitzeko biztanleria kopuruaren berri zea zein egunetan egiten den zehazki ez dakit.

**Populazioak gora egin du Arakilen: azkeneko bi hamarkadatan %9 igo da. Zergatik hazi da? Jaiotza asko dagoelako, jendea etortzen delako...**

Nik uste hainbat arrazoi daudela. Arakilen hamabi herri izanda, jaiotzena herri batzuetan boladaka izaten da. Heriotza tasa nahiko handia dugu, baina jaiotzak hainbat urtetan izan dira heriotzak baina altuago. Bestalde, gu udalean gaudenetik aldaketa nahiko potoloa sumatu dugu pandemiarekin. Etxebizitzaren

inguruan mugimendu handia sortu da, batez ere Iruñeritik datorren jendearekin. Eta bada go beste joera bat ere. Duela urte batzuk tendentzia izaten zen herrietako gazteak Iruñera joatea, hiriburura. Egun, Arakilen gelditzeko nahi hori nahiko agerikoa da. Garrantzitsua da ere teknologia berriek bertatik lan egiteko aukerak ireki dituztela. Horrek erraztasun gehiago ematen ditu hemen geratzeko. Eta guztia batuta, populazioa igo da. **Pandemian hirietako jende askok herri batean bizitzeko abantailaz ohartu da, eta Arakil Iruñetik gertu egotean ongi posizionatuta dago.**

Arakilek eta Sakanak, dutena da oso ongi komunikatuta gaudela, bai Iruñearekiko, Gasteizekiko eta Donostiarekiko ere. Iruñetik eta Gipuzkoa aldetik mugimendu handia sumatu dugu. Pandemia bukatu baino lehenago deiak izan genituen udaletxean, eta oraindik ere jendeak hots egiten jarraitzen du. Ostiralean hirigintza kontsultak izaten ditugu udalean; kontsultak handitu egin dira eta jendeak dauden aukerak begiratzera etortzen da.

Esaterako, Aizkorben aspaldidanik zeuden salgai etxebizitza batzuk, ez zegoen mugimendurik, eta orain guztiak saldu dira. Pentsatzen dugu pandemiarekin zerikusi zuzena duela.

**Hurbiltasuna, pandemia, teknologia berriak... jendea herrian errotzeko balio dute. Eta aipatu duzunez, soziologia aldaketa dago. Hiriburuak, agian, ez du horrenbeste tiratzen eta gazteak herrian geratzen dira.** Gurean behintzat hori agerikoa da. Arakilgo Udalean etxebizitzarekin lotutako proiektu bat lantzen ari gara gazteek beraiek eskatu dutelako. Gazteekin batera goaz, eta proiektua denon artean lantzen ari gara beraien "presioagatik", bulkada hori modu positiboan ulertuta. Beraien da eskaera, beraiek hemen bizi nahi dute, hemen lan egin, eta hemen geratu. Administrazioetik hori kontuan hartu behar genuen eta halako proiektuak elkarrekin landu. Landa eremuarendako oso garrantzitsua da etxebizitzaren gaia lantzea, eta erraztasunak ematea jendea hemen errotzeko.

**Arakilgo gazteekin zein da lantzen ari zareten proiektua?**

Sakanan lanketa sendo bat egiten ari gara etxebizitzaren inguruan. Etxebizitzaren gaia nahiko serioa da, egoera nahiko gogor batean gaude. Udalean sartu eta urte betera, pandemian, parte hartze prozesu bat abian jarri genuen Arakilen, eta bertan ikusi zen etxebizitzarekin zerbait egitea oso garrantzitsua zela. Horregatik

**"PARTE HARTZE PROZESUAN IKUSI ZEN: ETXEBIZITZAREKIN ZERBAIT EGITEA OSO GARRANTZITSUA ZEN"**

**"HIRIBERRIN JABETZAKO ETXEAK EGINEN DIRA, IHABARREN ALOKAIKURUKOAK"**

berrehala etxebizitza gaia hartuta beste parte hartze prozesu bat abiatu genuen eta herri bakoitzaren beharrak atera ziren. Izurdiagan eta Hiriberrin zerbait egitea ezinbestekoa zela jabetu ginen, jende kopuru handia zegoelako bere etxebizitza non egin ez zuela. Udaletik lekukoa hartu genuen, lanean hasi ginen eta une honetan proiektu pilotu bat lantzen gaude, Hiriberrin, elkar lanean, jabetzako etxebizitzak egin nahian, kooperatiba baten bitartez ziurrenik. Ea gazte talde horri etxebizitza bertan edukitzea errazten diogun.

**Hiriberrin zein da asmoa? Etxe berriak jasotzea edo etxeak zaharberritzea?**

Arakilen etxebizitza zahar asko ditugu, hutsik daudenak eta tipologia aldetik oso handiak direnak. Etxe horiei buelta emateko eta bizitoki moduan jartzeko zailtasun izugarria dago. Hiriberriko talde honekin lehendabiziko saiakera izan zen etxebizitza zahar handi horietako bat lortzea, zaharberritzeko, baina oso zaila zen. Hortaz, lurzoru bat eskuratu nahian dago udala, lanak aurreratutako ditugu eta bertan etxebizitza berriak jasotzea da asmoa. 15-20 pertsona daude interesatuta Hiriberrin etxebizitza egiten, eta etxebizitza zahar bat zaharberritzeak ere ez zuen arazoa konpontzen. Beraz, Hiriberrin etxe berriak egingo dira. Baina Ihabarren udalak etxe handi hauetako bat erosiko du eta alokairura bideratutako etxebizitzak egingo ditugu.

**Ihabarren, beraz, alokatutako etxebizitzak egiteko asmoa duzue?**

Sakanan bi arazo nagusi daude. Batetik, etxebizitza handi asko hutsik daude, eta, bestetik, alokairurako etxebizitzarik ez dago. Horregatik, Ihabarko egitasmoan bi aldeetara lan egin izan dugu. Udaletik zenbait herritan aritu ginen etxebizitza zaharrak ikusten: Etxeberrin, Izurdiagan, Ihabarren... Ez da batere erraza izan eta azkenean Ihabarren tokatu da.

**Jende asko hurbildu da udaletxera etxebizitza nahi duela eta ate joka?**

**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihok  
www.ventanasegoki.com

**KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA**  
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Bai, jende dexente. Hiriberrin, adibidez, esanguratsua da, puntuala; ez dakit zenbat etxebizitza egitera helduko garen, baina 15-20 pertsona interesatu daude, Hiriberri bezalako herri batendako kopuru altua. Bestalde, jende askok deitzen du udaletxera Arakilen alokatutako etxebizitzetaz galdezka eta etxebizitza jabetzan erosteko asmoarekin ere. Bi gauzetarako.

**Ahal duenak lursaila erosi eta etxea egingo du.**

Mugimendu hori ere nabaritzen da, baina herri bakoitzak aukera mugatuak ditu. Egia da, alde batetik, etxe berria egitea errazagoa dela. Ez zait aukera hobereana iruditzen, etxebizitza zaharrei bizia eman beharko genieke eta bizia ematera pasa, baina ez da batere erraza. Aukera honen alde egitea erraztuko du Nafarroako Gobernuak Arakil, Uharteko Arakilekin eta Arbizurekin batera, lehentasunezko zaharberritze eremu izendatu izana.

**Nondik dator izendapena?**

Arakilen etxebizitzaren inguruan egiten ari garen lanketa gehienak Sakanako etxebizitza lantaldean sortutako ekimenak dira. Eta hortik lortu dugu Nafarroako Gobernuak aipatu hiru udalak lehentasunezko zaharberritze eremu izendatzea. Horrek zer esan nahi du? Dirulaguntza kopuru handiagoa izango dugula gure herrietan etxebizitzak zaharberritzeko. Ez du arazoa konponduko, baina lagunduko du.

**Arakilen, Uharteko Arakilen eta Arbizun bakarren batek etxea zaharberritu nahi badu, dirulaguntza gehiago jaso ditzake?**

Bai, izendapenari esker dirulaguntzak handiagoak dira. Honen inguruko informazio guztia Sakanako Mankomunitateko zaharberritze bulegoan jaso daiteke. Normalean 35 urtez beherako zaharberritzeek eta 65 urtetik gorakoek jasotzen dute dirulaguntza. 35 urtetik 65 urtera bitarteko tartean nahiko hutsune handia dago. Arakil lehentasunezko zaharberritze eremuan dagoenez, tarte horretako zaharberritzeek ere gainontzekoen dirulaguntza berdina jasoko dute. Bada pauso bat.

**Etxeak zaharberritzen ez badira, berriak eraikitzen dira. Herriak bizirik daude, baina herriaren erdigunea, kasu askotan, hutsik dago.** Hori da gertatzen dena. Arazo potoloa dugu Sakanako gainontzeko herrietan ere: etxerik zaha-



Oihana Olaberria Jaka. Atzean udalak lhararren erosiko duen etxea, alokairurako bideratuko duena. UTZITAKOIA

rrenak erdigunean daude eta etxe zahar horiek erortzen ari zaizkigu. Eta horrek ez du bueltarik. Beraz, energia kopuru handi bat, ahal dena, zaharberritzean jarri beharko genueke la iruditzen zaigu.

**Etxarrenean industrialde handia egiten ari da Nafarroako Gobernuak. Hori ere populazioa erakartzeko bide bat izan daiteke.**

Bai, beste bide bat da. Zein motatako industriak kokatuko diren, hor dago kokka. Lanpostuak sortuko dituzten ala ez. Momentuz zenbait pertsonen

**"ETXEBIZITZA ZAHARREI BIZIA EMAN BEHARKO GENIEKE, BAINA EZ DA BATERE ERRAZA"**

**"ARAKIL, UHARTE ARAKIL ETA ARBIZU LEHENTASUNEZKO ZAHARBERRITZE EREMU DIRA"**

lana lortu dute egun dagoen enpresa bakarrean, Harivenasan, eta badirudi aurrera begira badaudela beste proiektu batzuk lanpostu dezente sortuko dituztela aurreikusten dela. Hau ez dago zuzenean udalaren esku, Nasuvinsak eskumen handiagoa du. Arakilen ekonomia motorra nekazaritza eta abeltzaintza izan da orain arte, baina gizartea aldatzen den heinean ekonomia eredu ere aldatzen ari da.

**Horrelako industria garapen bat egiten denean, honi lotuta ez litza-**

**teke etxebizitza politikarekin lotutako plangintza bat egon beharko?**

Ez dago halakorik. Harivenasa egiten aritu ziren bitartean langileek izugarritzko arazoak izan zituzten, non gelditu ez zutelako. Arakilen izugarritzko gabeziak zeuden, Irurtzunen ere nahiko justu eta Lekunberri aldera eta beste hainbat lekutara joan behar izan ziren ostatu hartzera. Luze egon ziren langileak, eta ez zegoen modurik bertan gelditzeko. Horrek ere arazoaren dimentsioaren berri eman zigun. Eta ikusita zer datorren, lanpostuak sortuko direla baitirudi, etxebizitzaren gaiari buelta handia eman beharko litzaioke. Ez da etxebizitzak egiteagatik egitea, baizik eta gure herrietako tipologiak, ingurumena... eta gauza asko errespetatuz egitea.

**Jendeak gero eta gehiago gelditu nahi du ibarrean bizi, baina batzuk ere ateratzen dira. Zeintzuk dira arazoak? Ikasketak, lana...**

Askotan gazteekin gertatzen dena da ikastera kanpora ateratzen direla eta gero ez direla bueltatzen. Hori arazo bat da. Eta lanarekin berdin. Lanera kanpora ateratzen dena, kostata bueltatzen da. Lortu beharko genukeena da atera behar ez izatea. Horretarako etxebizitzaz aparte, mugikortasunean ere izugarritzko erronka daukagu. Gauza asko koordinatu eta lotu beharko litrateke.

**Adinekoendako ere egoitzarik ez dago.**

Ez dago, eta hori izango da datoren legegintzaldirako erronka potoloetako bat. Uste dut Sakanan gai hori aztertu beharko genuekeela. Arakilen izugarritzko gabezia dugu arlo horretan. Zahar-tutako biztanleria dugu. Duela gutxi, lagun baten ama Erribera aldeko zahar etxe batera eramatu zuten. Etxetik ahalik eta gertuen egoteko aukera izan beharko genuke. Gai honen inguruan lanean gabiltza, lehendabiziko pausoetan, baina behar beharrezkoa da.

**Arakil mila pertsona izatera iristen denean, ospatuko duzue?**

(Kar, kar...) Ospatzekoa da, ez? Lan gehiago emango digu zerrendak aurkezteko orduan eta abar, baina izan dadila hori kalterik handiena. Ongi etorriak Arakileran, mundu guztia ongi etorri izan dadila. Ea joera hori mantentzen dugun. Nik uste dut landa eremuak bizirik behar ditugula eta horretara goaz.

## Demografia, elkarlan baten aurreneko pausoa

EITBk eta Tokikomek elkarlanean Hego Euskal Herriko demografiaren datuak elkarrekin landu dituzte

### SAKANA


Euskarazko tokiko hedabideen bateragunea den Tokikom eta EITBren arteko harremana aspaldikoa da. Eta elkarlan horren lehen fruitua tokiko hedabideek gure inguruko errealitatea Euskadi Irratian emateko zabaldu zen leihoa da, gaur egun arratseko Bypassa magazinean zabalik mantentzen dena asteartean 17:30etik aurrera.

Saretzen proiektua izan da aste honetan EITBk eta Tokikomek mustu dugun proiektuaren izena. Haren oinarria duela urte bat jarri zen, Tokikomen Komunitatea josten jardunaldiaren harira. Han BBCk eta Erresuma Batuko dozena tokiko hedabideren artean osatutako Local News Partnership proiektuaren berri eman zuen Matthew Barraclough, BBCko egitasmoaren zuzendariak. Bere egonaldia baliatuta Euskal Herri-rako ereduia zein izan zitekeen aztertu zen. Eta oinarri hura izanik, urtebeteko lanketa eta gero etorri da EITBren eta Tokikomen arteko lankidetzaren proiektua eta Saretzen egitasmoa.

### Hasteko, demografia

Saretzen proiektuaren muina datu kazetaritza da. Datuak modu bateratuan kudeatu eta ustiatu ditugu EITBk eta Tokikomek. Eta elkarlan horren lehen emaitza Hego Euskal Herriko demografia datuen azterketa izan da, nork bere esparruari, ezaugarriei eta eremuari egokituta. GUAIXE FUNDAZIOAREN kasuan 2001-2021 urte arteko Sakanako datuak landu ditugu, Eustat eta Nastat iturri hartuta. 20 urteetako bilakaera aztertzeaz aparte, biztanle kopurua, jaiotzak, heriotzak eta populazioaren mugimenduen erreparatu diegu, ibarreko errealitateari. Asteartean horren berri [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus) webgunean eman genuen, eta hemen zabaldu landu dugu.

### Sakana



# Adinduen taldea hazi da batez ere

Aurreko 18 urtetan 60 urte edo gorakoen taldeak 4,39ko hazkundea izan du. Igoera apalagoa izan du 0 eta 19 urte artekoen adin taldeak, 0,98 puntukoa. Bi taldeen ehunekoen arteko aldea 2003an 4,91koa zen, 2021ean, berriz, 8,33koa

### Alfredo Alvaro Igoa eta lune Trecet Obeso SAKANA

2003 eta 2021 urteen artean urte-tik urtera gora egin du adinduen kopuruak. Ibarrean gehien handitu den adin tartea da 60 urtetik gorakoena da, 996 (%21,07) pertsona gehiago eta 4,37 puntu gehiago zituen joan zen urtean. Populazioaren %28,22 zen. Beraz, Sakanak zaharragoa da gaur egun. Hala ere, Sakanako zahartzea Hego Euskal Herriaren azpitik 1,78 puntu dago.

Gazteen adin tartea, 19 urte artekoa ere handitu egin da. 2003an baino 282 (%7,51) pertsona gehiago daude multzo horretan, 0,98 puntu gehiago, baina adinduen hazkundetik urruti, eta Hego Euskal Herriko hazkunde baina 0,76 puntu beherago. Gazteak sakandarren %19,89 ziren joan den urtean. 2003tik gazteen kopuruak gora egin zuen eta 2011. urtetik 4.000ren inguruan mantendu

da, 2021ean 4.033 gazte zeuden ibarrean.

Azkenik, behera egin duen adin tartea 20 eta 59 urte artekoen adin tartea dago. 2003 eta 2009 urteen artean goranzko joera izan zuen baina ordutik gero eta pertsona gutxiago daude talde horretan. 2010 eta 2019 artean Sakanak izan zuen biztanleriaren galerarekin bat egiten du. Aztertutako aldiaren adin tartea horrek 837 (%7,37) pertsona eta 5,37 puntuko jaitsiera izan du. Hala ere, helduen taldea jendetsuena izaten segitzen zuen, sakandarren %51,89 adin tartea horretan baitzegoen 2021ean. Hego Euskal Herriaren taldearen jaitsiera 2,51 puntu txikiagoa izan da.

### Bitxikeriak

Gazteen adin tartean, 0 eta 19 urte artean, sei herrik gaintzen dute ibarreko batz besteko kopurua: Irurtzun, Irañeta, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz eta

Iturmendi. Ibarreko 15 udalerrietatik Arbizu da bakarra gazteen portzentajea adinduena baino handiagoa dena. Sakanako portzentajearen batz bestekoa baino baxuagoa duten udalerririk nabarmenenak honakoak dira: Ergoiena, Ziordia, Arruazu eta Bakaiku. Aztertutako aldiaren Irañeta, Lakuntza eta Urdaingo adin tartea horren igoeraren ehunekoa oso handiak izan dira, %40tik gorakoak.

20 eta 59 urte arteko adin tartea da ibarreko 15 udalerritan jende gehien duena, nahiz eta zenbait herritan adinekoren multzoa oso gertu izan. Datuei erreparatuta sei udalerririk Sakanako portzentajearen gaitetik daudenak: Arakil, Irurtzun, Arruazu, Arbizu, Altsasu eta Ziordia. Eta batz bestekoaren nahiko azpitik daude: Irañeta, Ergoiena, Bakaiku eta Urdaingo. Bestalde, 2003 eta 2021 bitartean Iturmendin helduen taldean %20

tikgora hazi da. Ergoienan, berriz, kontrakoa.

Azkenik, 60 urtetik urtekoen adin tarteari erreparatuta lau herrik bakarrik dute Sakanako batz bestekoa baino txikiagoa: Irurtzun, Lakuntza, Arbizu eta Altsasu. Ibarreko portzentajearen oso gaitetik daude Ergoiena, Bakaiku, Ziordia, Olatzagutia eta Urdaingo eta populazio zahartuagoa dute. Bestalde, 2003 eta 2021 urteen artean adinduen kopuruak %30etik gorako igoera handia izan duten herriak dira Etxarri Aranatz, Irurtzun, Lakuntza eta Bakaiku. Aldiz, Arruazu, Ergoienan, Ziordian eta Urdaingo adin talde horrek behera egin du.


### Herriak

Arakilen hiru adin tarteari nahiko egonkor egon dira, gorabehera handirik gabe 2003 eta 2021 artean, baina, beti ere, goranzko joerarekin hirurak. Gehien hazi dena 52 pertsona eta %22,8 gehiago 60 urtetik gorako adin tartea da, 228 izatetik 280 izatera pasa baita. Arakildarren %28,99 zeuden tartea horretan, Sakanako batz bestekoa baino 0,77 puntu gehiago. Gazteen adin tarteari ere gora egin zuen Arakilen 33 pertsona eta %22,44 gehiago izatera pasaz, 147tik 180ra. Arakildarren %18,63 zituzten 0 eta 19 urte artean, Sakanako batz bestea baino 0,23 puntu gutxiago. Azkenik, helduen taldea da pertsona gehien biltzen dituen Arakilen,




■ Biztanleria ■ <20 urte ■ 20-59 urte ■ > 60 urte


**Arakil**



**Irurtzun**



**Irañeta**




%52,38, Sakanako batz bestekoa baino 0,49 gehiago. 20 eta 59 urte artekoen taldea 492 pertsona izatetik 506 izatera pasa zen, 14 pertsona eta %2,84 gehiago.

**Irurtzun** aztertutako aldian gehien handitu de adin taldea 60 urtetik gorakoena da, 372 irurtzundar izatetik 512 izatera pasa da, 145 pertsona eta %38,97ko hazkundea. Adinekoak irurtzundarren %22,52 dira, Sakanako batz bestekoaren azpitik 5,7 puntu. 0 eta 19 urte artekoen adin tartean ikertutako aldian gorabeherak izan ziren, baina 2018tik aurrera gorantz egin zuen. Taldea 498 izatetik 514 izatera pasa zen, 16 pertsona eta %3,21eko hazkundea. Gazteak irurtzundarren %22,39 dira, kasik adinekoen pare. Gainera, ibarreko batz bestekoaren ginetik 2,5 puntu gorago dago. Azkenik, 20 eta 59 urteen artekoen taldeak ikertutako aldian gorabeherak izan ditu, baina beheranzko joera izan du. 1.407 kideetik 1.265era pasa zen, 142 pertsona eta %10,09 gutxiago. Helduak irurtzundarren %55,10 dira, Sakanako batz bestekoaren ginetik 3,21 puntu gehiago.


**Irañetan** bi hamarkadetan gazteen adin taldea 13 pertsona eta %46,42 hazi da, 28tik 41era pasaz. Gazteak irintarren %24,4 dira, Sakanako batz bestekoa baino 4,51 puntu gehiago. Irañetan hazi den beste adin taldea adinduena da, 47 pertsona izatetik 52 izatera pasa da; 5 pertsona eta %10,3ko igoera. Adinduak irintarren %30,95 dira, ibarreko batz bestekoa baino 2,73 gehiago. Azkenik, helduen adin tartean 86 pertsonatik 75era behera egin du, 11 pertsona eta %12,79 gutxiago. Helduak irintarrek 44,64 dira, Sakanako batz bestekoa baino 7,25 puntu gutxiago.

**Uharte Arakilen**, nahiko egonkor izan arren, gehien handitu den adin taldea 60 urte edo gehiago dituztenena da. 197 izatetik 232 izatera pasa da, 35 pertsona eta %17,76ko igoera izan du. Adindu ubertearrak herriarren %29,71 bat dira, Sakanako batz bestekoa baino 1,49 puntu gehiago. Aztertutako aldian kopuruan gora behera txikiak izan dituen arren, igo den beste adin taldea 0 eta 19 urte artekoa da. 145 izatetik 150era pasa da, 5 pertsona eta %3,44ko igoera izan du. Gazteak ubertearren 19,21 dira, ibarreko batz besteko kopuruaren azpitik 0,68 puntu.


**Uharte Arakil**



**Arruazu**



**Lakuntza**






Biztanleria <20 urte 20-59 urte > 60 urte


**Arbizu**



**Ergoiena**



**Etxarri Aranatz**



Azkenik, 20 eta 59 urtekoen taldeak behera egin du. 2010ean bere kopuruak goia jo zuen eta 2013ra arte antzeko zifra izan bazuen ere, 2014tik aurrera beherantz egin zuen. 2003 eta 2021 artean 445 izatetik 399ra pasa zen, 46 pertsona eta %10,33ko galera. Helduak ubertearren %51,09 ziren, ibarreko batz bestekoa baino 0,8 gutxiago.

**Arruazu** aztertutako aldian adinduen kopuruak %31,81 eta 14 pertsona egin du behera, 44 izatetik 30 izatera pasa ziren. Arbuzuarren %30 dira adinduak, ibarreko batz bestekoa baino 1,78 puntu gehiago. Beste bi adin taldeak gora egin dute Arruazun. 0 eta 19 urte artekoak 14 izatetik 16 izatera pasa dira, 2 gazte eta %14,28ko hazkundera. Hala ere, ibarreko batz bestekoa baino 3,89 puntu gutxiago da. 20 eta 59 urte bitarteko adin tarreak ere gora egin du 48 izatetik 54 izatera pasaz, 6 pertsona eta %12,5 gehiago. Bitarteko horretan Sakanako batz bestekoa baino 2,11 puntu gehiago daude Arruazun.

**Lakuntzan** hiru adin taldeen kopuruak egin dute gora 2003 eta 2021 artean. 2009tik aurrera gorakojera izan dute gazte eta adinduen taldeak. 0 eta 19 urte artekoak 208 izatetik 304 izatera pasa ziren, 96 pertsona eta %46,15eko hazkundera. Gazteak lakuntzarren %23,97 dira, adinduen portzentajetik gertu, eta Sakanako batz bestekotik 4,08 puntu gorago. 60 urtetik gorakoei dagokionez, 227 izatetik 313 izatera pasa dira, 86 pertsona eta %37,58ko igoera. Lakuntzarren %24,68 dira adindua, ibarreko batz bestekoaren azpitik 3,54 puntu. Azkenik, 20 eta 59 urteen artekoen kopuruak ere gora egin du. Goia 2009 eta 2013 urteen artean jo zuen talde horrek eta, ordutik, pitteka, behera egiten ari da. Hala ere, ikertutako aldian gora egin du 614tik 651ra, 37 pertsona eta %6,02ko hazkundera. Helduak lakuntzarren %1,34 dira, Sakanako batz bestekoa baino 0,55 puntu gutxiago.

**Arbizuk** gazte eta adinduen multzoek goranzko joera izan dute 2003 eta 2021 artean, helduen taldean ere ahala izan da, baina gorabeheraren bat ere izan da tartean. 0 eta 19 urteen artekoen taldea da Arbizun gehien hazi dena, 190etik 265ra pasa da, 75 gazte eta %39,47 gehiago dira. Gazteak arbuzuarren %23,81 dira, ibarreko batz bestekoa baino 3,92 gehiago. Gehien hazi den

hurrengo adin taldea 20 eta 59 urte artekoena izan da, 514tik 584ra pasa zen, 70 pertsona eta %13,61 gehiago. Helduak Arbizun %52,47 dira, ibarreko ehunekoa baino 0,58 gehiago. Azkenik, adinekoak, arbuzuarren %23,72 dira, Sakanako batz bestekoa baino 4,5 puntu gutxiago. 246 izatetik 264 izatera pasa ziren, 18 pertsona eta %7,31 gehiago.

**Ergoienan** hiru adin tarreak behera egin dute. Gehien 20 eta 59 urte artekoenak egin zuen behera, 2017tik 165era pasa zen, 52 pertsona eta %23,96 gutxiago. Helduak erguendarren %45,08 dira, ia helduen adin taldearen pare. Sakanako batz bestekoa 6,81 gutxiago. Adinduen taldean izan da ehunekoetan gehien jaitsi dena, %13,68 eta 26 pertsona gutxiago, 190etik 164ra pasa baita. Adinduak erguendarren 44,81 dira, ibarreko batz bestekoa baino 16,59 puntu gehiago. Azkenik, gazteak izan dira jaitsiera apalena izan dutenak. 41 izatetik 37ra pasa ziren, 4 pertsona eta %9,75eko jaitsiera. Gazteak erguendarren %10,11 ziren, Sakanako batz bestekoaren azpitik 9,78 puntu gutxiago.

**Etxarri Aranatz** aztertutako aldian zahartu egin da. Izan ere, 60 urtetik gorako adin taldea 499 pertsona osatzetik 724ra pasa zen, 225 pertsona eta %45,09ko hazkundera. Adinduak etxarriarren %29,09 dira, ibarreko batz bestekoaren gainetik 0,87 puntu gehiago. Etxarri Aranatz hazi den beste adin taldea gazteena da; joera garbia da 2009tik aurrera. 0 eta 19 urte arteko 471tik 530era pasa dira, 59 gazte eta %12,52ko hazkundera izan da. Gazteak etxarriarren %21,29 dira, Sakanako batz bestekoaren gainetik 1,4 puntu. Azkenik, helduen multzoak tarte horretan gorabeherak izan ditu baina beheranzko joera nagusi izan da. 1.447tik 1.235era pasaz, 212 pertsona eta %14,65ko jaitsiera izan du. 20 eta 59 urte arteko etxarriarrak %49,62 dira, ibarreko batz bestekoaren azpitik 2,27 puntu gutxiago.

**Bakaikun** gehien hazi den adin tartea 60 urtetik gorakoena da, 95 pertsona izatetik 130 izatera pasa da, 45 pertsona eta %36,84 gehiago. Bakaikuarren %36,83 dira adinduak; Sakanako batz bestekoaren gainetik 8,61 puntu gehiago. Aldi berean Bakaikun gora egin du 0 eta 19 urte bitarteko adin tartea, 4 gazte eta %7,54 gehiago. Gazteak baka-

kuarren %16,15 dira, ibarreko batz bestekoaren azpitik 3,74 puntu. Azkenik, 20 eta 59 urtekoen multzoak behera egin du 197tik 166ra, 31 pertsona eta %15,73 gutxiago. Helduak bakaikuarrek %47,03 dira, ibarreko batz bestekoa baino 4,86 puntu gutxiago.

**Iturmendi** gehien hazi den adin taldea 20 eta 59 urte artekoena da: 180 izatetik 218 izatera pasa ziren, 38 pertsona eta %21,11 gehiago. Helduak iturmendiarren %50,58 dira, Sakanako batz bestekoaren azpitik 1,31 puntu. Iturmendin gehien hazi den hurrengo adin taldea 0 eta 19 urte artekoena da, 9 pertsona eta %11,39ko hazkundera izan du. Gazteak iturmendiarren 20,42 dira, ibarreko batz bestekoaren gainetik 0,53 puntu. Azkenik, hazkunde apalena 60 urtetik gorako adin taldeak izan du, 119tik 125era pasaz, 6 pertsona eta %5,04ko hazkundera. Iturmendiarren %29,60 urte edo gehiago ditu; Sakanako batz bestekoa baino 0,78 puntu gehiago da.


**Urdaian** gehien handitu den adin taldea gazteena da. 2008an gainditu zuen ehuneko langa eta ordutik nahiko egonkor mantendu da. 2003an 87 izatetik 2021ean 128 izatera pasa ziren, 41 pertsona eta %47,12ko hazkundera. Hala ere, Sakanako batz bestekoaren azpitik 0,61 puntu dago. Gainontzeko bi adin taldeak behera egin dute. Gutxi 20 eta 59 urte artekoena izan da. 2008 eta 2013 artean goia jo zuen, hurrengo urtean jaitsi zen eta ordutik nahiko egonkor mantendu da. 326tik 322ra pasa da, 4 pertsona eta 1,22ko galera. Ibarreko media baino 3,4 puntu gutxiago da. Azkenik, 60 urte edo gehiagoko taldean gorabehera txikiak egon dira, baina azken bi urtetan gora egin du. Hala ere, 217tik 2014ra jaitsi da, 3 pertsona eta %1,38ko jaitsiera. Adinduak urdindarren %32,23 dira, Sakanako batz bestekoa baino 4,01 puntu gehiago.

**Altsasu** bi hamarkadetan %25,46 zahartu da, 60 urtekoen adin tartea 1.653tik 2.074ra pasa baita, 421 gehiago. 2005etik urtero gora egin du multzoko kideen kopuruak. Altsasuarren %27,87 adin tarte horretan zegoen 2021ean, Sakanako batz bestekoaren azpitik 0,35 puntu. Bestetik, hamarkada aldaketarekin gorako joera utzi eta 2010etik aurrera urtero behera egin du 20 eta 59 urte arteko altsasuarren kopuruak. 2003 eta 2021 artean 4.255 altsasuar izatetik 3.962ra




■ Biztanleria ■ <20 urte ■ 20-59 urte ■ > 60 urte

### Bakaiku



### Iturmendi



### Urdiain




pasa da, 293 pertsona eta %6,88 gutxiago. Altsasuarren %53,25ek zegoen multzo horretan, ibarreko batz bestekoaren gaineratik 1,36 puntu gehiago. Azkenik, 0-19 urte artekoen multzoak kide kopuruan behera egin zuen 2003 eta 2007 artean. Hurrengo sei urtetan gora egin ondoren, 2014tik beheranzko joera du. Aztertutako aldian 1.447 gazte izatetik 1.405 izatera pasa dira, 42 eta %2,9 gutxiago. Altsasuarren 18,88 ziren gazteak 2021ean, Sakanako batz bestekoaren 1,01 puntu azpitik.


**Olatzagutian** behera egin dute gazte eta helduen tarreek eta gora adinduenak. 60 urte edo gehiago dutenak 441 izatetik 486 izatera pasa ziren, 45 pertsona eta %10,2ko igoera. Adinduak olaztiarren %32,73 dira, Sakanako batz bestekoa baino 4,51 puntu gehiago. Jaitsiera handien izan duen adin tartea 20 eta 59 urte artekoena izan da, 960tik 729ra pasaz, 241 pertsona eta %24,06 jaitsiera. Helduak olaztiarren %49,09 dira, ibarreko batz bestekoa baino 2,8 puntu gutxiago. Azkenik, 0 eta 19 urte artekoen adin taldeak 2006 eta 2013 artean 300 kide pasatxori-etsi zion, baina 2014tik aurrera behera egin zuen, 296tik 270ra pasa zen, 26 pertsona eta %9,12ko jaitsiera. Gazteak olaztiarren %18,18 dira, Sakanako batz bestekoa baino 1,71 gutxiago.

**Ziordian** gehien igo den adin taldea 20 eta 59 urte artekoena izan zen. 2008an gora egin zuen eta 2013tik, gorabeherekin, baina antzeko kopuruak mantendu ditu urtez urte. 168 izatetik 188 izatera pasa zen, 20 pertsona gehiago eta %11,9ko igoera. Helduak ziordiarrek %53,41 dira, Sakanako mediaren gaineratik 1,52 puntu. 0 eta 19 urte artekoen kopurua ere 2008an hazi zen, eta ordutik antzeko ibili da. 47 izatetik 48 izatera pasa ziren, pertsona bat eta %2,12ko igoera izan zuen adin taldeak. Ziordiarren %13,64 dira, ibarreko batz bestekoa baino 6,25 puntu gutxiago. Bi adin horietan mendeko lehen hamarkadan izandako igoerak Errekalde kalean egindako urbanizazioarekin lot daitezke. Azkenik, 60 urte edo gehiagokoen artean jaitsiera izan da. Beherakada, 2016 urtean izan zen, eta mojak herritik joatearekin zerikusia izan du. 150 izatetik 116 izatera pasa da adinduen tartea, 34 pertsona eta %22,66ko jaitsiera. Adinduak ziordiarren %32,95 dira, ibarreko batz bestekoa baino 4,73 puntu gehiago.


### Altsasu



### Olatzagutia



### Ziordia





ASTEKOA

AINGERU MIKEO

## Euskaraldia bai, baina

Gaur despedituko dugu aurtengo Euskaraldia. Ilusioz, arduraz, gogoz eta emozioz ekin genion ariketari. Euskaraldiak azaroaren 18tik abenduaren 2ra arte Ahobizi edo Belarriprest izatera gonbidatu gintuen, eta gainera Ariguneak ere izan dira egunotan. Horrela, kaleak bete omen ditugu euskaraz hitz egiten. Hori bai, ariketa "egun horietara" mugatu zen.

Euskaraldiaren aurkezpena Nafarroan egin zutenean, bertan izan ziren Ana Ollo Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria eta Euskarabideko zuzendari Mikel Arregi. Horrela, Nafarroako Gobernutik gonbitea egiten zaigu "egun horietan" euskaraz aritzeko ahaleginak egiteko. Bestalde, Gobernuak eta beste erakundeen laguntzaz antolatutako kanpaina horretan sumatzen da dirua mugitzen dela. Marketina eta horren inguruan sortutako propaganda ikusi besterik ez dago. Gobernuko alderdi "euskaltzaleen" erabakimena?

Izenburuan "baina" paratu dut, hain zuzen ere, badelako zer edo zer ariketa honetan ongi koadratzen ez duena, edo bai. Izan ere, dagoeneko bigarren legealdia betetzera doa eta teoriarik Gobernu "aurrerakoa" edo "progresista" omen dugu, baina euskara kontuetan, euskalgintzako erakundeei sosa pixka bat gehiago emateaz haratago, herritarrok ez dugu sumatzen aurrerapenik egin denik. Alegia, Gobernuaren departamentuetako leihatiletan, eta oro har haiek ematen duten informazio teknikoan, euskaraz egin ahal izatea Lurdesko amabirjinak itsua sendatzea bezalatsukoa da. Justizia departamentuan, euskarak alergiaz sortzen die nonbait, ez baitago horren arrastorik. Eskerrak justizia denontzat berdina den! Foruzaingoak ere halaxe jokatzeko du, berdin Sakana eremu euskaldunean. Eskerrak lege eta arau zaintzaile diren! Eta horrela, zerrenda amaigabea egin liteke.

Euskaraldiaren egitasmoa eta xedea euskararen sustapenerako baliagarriak izanen badira ere, nahitaezkoa da euskaldunon eskubideen estatusa benetan bermatzea eta administrazio egiturak horretarako egokitzea. Hori horrela, Nafarroako Gobernuaren ordezkariak Euskaraldia aurkezteko argazkian azaltzen bada ere, Nafarroako Gobernu euskaldunon eskubideak bortizki eta egunero zapaltzen ari da, baita Euskaraldian ere.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

HARA ZER DIEN

## Teknoadikzioa: zer da eta nola eragiten du

### SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Azken urteotan teknologia oinarriko baliabide bihurtu da eguneroko bizitzarako, komunikazioa, ikaskuntza, entretenimendua eta abarrak garatuz eta erraztuz. Espainiako Estatistika Institutu Nazionalak (INE) dio 10-15 urte bitarteko haur eta nerabeen %94,5 Interneten erabiltzaileak direla.

Internetek, modu estentsibo batean erabilia, jokabide edota ohitura berriak sortitzeko, familietan eta hezkuntza zentroetan kezka sorrarazten dutenak; izan ere, nahiz eta teknologiek onurak izan badituzten, arriskuak ere bai, hala nola, teknoadikzioa. Adikzio mota honekin,

pertsonak teknologia bizitza egituratzeko ardatz bihurtzen dute, etengabe erabiliz (gogobetetasun maila egokia lortzeko edo tolerantzia). Ezinegona sentituko lukete erabili ezean (abstinentzia sindromea). Bi kontzeptu hauek dira teknoadikzioaren dimentsio nagusienak.

Internetarekiko adikzioa teknoadikzio mota bat bezala dago definitua. Espainiar estatuan nerabeen %21,3 Internetarekiko adikzio arriskuan daude. Nerabeekin egin berri den beste ikerketa batek nabarmentzen duenez, ikasleen ia erdiak ez dituzte teknologiak modu aproposan erabiltzen edo gehiegi erabiltzen dituzte, autoestimuan, osasun

mentalean, presio estetikoan, antsietatean, sozializazioan, ziberbullying-ean, nekean edota ongizate emozionalean eragin negatiboak sortuz. Teknoadikzioaren ondorioz, eragin negatiboak lau alderditan banatu daitezke: eragin fisiologikoak, emozionalak, sozialak eta akademikoak.

Nahiz eta teknoadikzioak eragina edozein pertsonarengan izan dezakeen, nerabeak dira arrisku gehien duten biztanleak. Honen aurrean, beraz, beharrezkoa izango da baliabide digitalekiko eta gailuekiko kontsumo arduratsua sustatzea, praktika onak eskaini eta konpromisoak hartuz.



**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
618 640 056

### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

### Zuzentzailea:

Joxe Aldasoro Jauregi

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
[guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)

### Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa  
[kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

### Maketatzailea:

lune Trecet Obeso  
[maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)

### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675



**Gobierno de Navarra**  
**Nafarroako Gobernu**





Irurtzundarrak erosketa gurdi eta poltsarekin. ARTXIBOA

## Erosketa bonuak prezio erdian eskuratzeko aukera

Herrian erosketak egitera bulkatzeko, 10 euroko bonuak 5 eurotan eskuratu daitezke udaletxean

### IRURTZUN

Irurtzungo Udalaren *Herriko dendeekin bat!* kanpaina azaroaren 26tik ilbeltzaren 5era arte herriko 28 establezimenduetan erosketak egiteko deskontu txartelak egin ditu. 10 euroko balioa duten bonuak 5 eurotan eskuratu daitezke udaletxean. 1.500 bonu egin ditu udalak eta aipatutako daten artean eskuratu daitezke. Erabili, berriz, kanpainarekin bat egin duten herriko 28 establezimenduetako batean erabili daitezke.

Bonuak eskuratzen dituzten irurtzundarrek baldintza zehatzak kontuan izan beharko dituzte. Lehenik, erabilera bakarreko bonuak direla. Bestetik, erosketaren zenbatekoa bonuaren balioa baino txikiagoa bada, aldea ez da eskudirutan bueltatuko. Udalak jakinarazi duenez, bonuak ezin dira eskudirutan trukatu, eta ez da inola ere balio

horren zenbatekoa itzuliko. Erositako produktua bueltatzen bada, establezimenduak erosketaren balio osoarekin balea egingen dio erosleari. Horretaz aparte, erosketa bat egitean nahi adina bonu pila daitezke. Eta, azkenik, udalak jakinarazi du bonurik edo ordaindutako dirurik ez duela bueltatuko haiek galdu edo bestelako egoerak sortuz gero.

Ekimen horrekin Irurtzungo Udalak herriko merkataritza sustatu, sektoreak herriarendako duen garrantzia azpimarratu eta dendek herriari ematen dioten bizitza eta dinamismoa azpimarratu nahi du. Irurtzungo Udalak egindako bonuak eskuratzeko irurtzundarrek udal-txetik pasa behar dute, astegunetan, 09:00etatik 14:00etara. Bakoitzak gehienez 5 bonu eskuratu ditzake. 28 establezimenduk bat egin dute ekimenarekin.

# Orain hasten da hitzari eusteko garaia

Gaur despedituko da Euskaraldia, euskararen erabilera soziala sustatzeko ariketa kolektiboa. Belarriprest eta ahobizi txapak hamabost egunez euskaraz bizitzeko inguru emankorra sortu dute. Konpromisoak baloratu eta berriak hartzeko garaia da.

### SAKANA

Euskararen Egunaren bezperan, gaur, despedituko da Euskaraldia. Hitzek ekiteko garaia dela esan digu haren leloak. Euskaraz bizi diren herritarrek hizkuntza estresari egunero aurre egin behar izaten diogu: "honek euskara jakinen du? Zerbitzariak ez dit ba muturbelza jarri euskaraz hitz egin diodalako!" Eta halako beste makina bat esaldi ahoratzen dituzte. Horrek pertsona asko euskararen espaloia utzi eta erdararen kalea hartzera eramaten ditu, halakorik ez sufritzeko. Inguruaren inertziagatik kale horretan eroso ibiltzen dira euskara dakiten asko, sekula hizkuntza estresik bizi gabe. Euskaraldiak halakoak saihesteko edota aldaketa probatzeko kolektiboaren babes esparrua eskaini du, hizkuntza praktikak bermatu eta, nahi izanez gero, hartutako ohitura batzuk aldatzeko, euskararen espaloira igotzeko.

Batzordeetatik eskatu zen norberak bere buruarekin konpromisoa edo erronka bat hartzea, ariketa bitartean eta bukaeran betetze maila ebaluatzeko. Bakarkako lan hori egiteko garaia da orain. Eta erronka horiek finkatzeko ere. Baina ez soilik arlo pertsonalean. Izan ere, ari-gune figuraren bidez entitate



Hizkuntza ohiturak aldatzeko erronka edo konpromiso berriei heltzeko garaia da.

mordo batek parte hartu dute Euskaraldian. Kultur, gizarte eta kirol elkarteek, erakundeek, enpresek, merkataritza, ostalaritza eta bestelako entitateek ere euskararen biziberritzean eragiteko aukera dute, bai barrura begira, bai kanpora begira ere.

Euskaraldia hizkuntza ohituretan eragiteko ariketa da, bi urtean behin egiten dena. Ariketa bukatu da, baina bukaera bera hasiera ere bada. Hurrengo Euskaraldia bitartean bestelako ariketak egin daitezke norberaren hizkuntza ohiturak aldatu

eta, aldi berean, norberaren inguruan eragiteko. Aurrera begirako konpromiso aukera batzuk izan daitezke, esaterako: lehen hitza euskaraz egitea, beste herri edo hiriburu batera joatean euskaraz hitz egitea, euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzten pertsonekin euskaraz hitz egitea, ordenagailuak eta sakelako telefonoak eta haien nabigatzaileak euskaraz konfiguratzeko, mintzakide programan izena ematea, ezagutzen ez dugun pertsonen euskara eskaini eta hizkuntzarako atek zabaldurako...

**BiL TOKI**  
TABERNA • JATETKA

**Eguneko menua 11 €**

**Menu berezia 15 €**

948 562 348 • Altsasu

Aurretik eskatzeko:  
Mantekatua, trufak, stollenak, gabonetako tronkoak, mihoja, pantxineta, goxua, turroiak.

**PORTUKO**

Altsasu: 948 563 822 (denda)  
948 467 153 (lantegia)  
Etxarri Aranatz: 948 460 988

**Pirritx, Porrotx eta Marimotots**

Abenduaren 3an  
17:00etan  
Irurtzungo kiroldegian

Sarrerak salgai:  
Pikuxar  
Estankoa  
Martxueta  
Maimur (Leitza)

aizpea

URTEAK BETE ABENTURAK BIZI!

## Udaberrirako martxan izanen da santutegiko harrera

Obra egiteko laguntza eman nahi dutenek urte bukaera arteko aukera dute

UHARTE ARAKIL

Aralarko santutegiaren sarrera-ko pasabidean, sartu eta berehala ezkerrean, kisu-gileak lanean ari dira, eta hala segituko dute hilabete pare batez. Han harrera gunea, komunak eta denda eginen dituzte. Lanek 120.000 euroko aurrekontua dute. Gauzak ongi udaberrirako guztia prest izatea nahi luke Mikel Garziandia Goñi kaperauak. Azaldu duenez, "aurrekontuari aurre egiteko jendeak ekarpenak egin ditzake. Nafarroako Gobernuaren Mezenazgo Legearen baitan, lanek Mecna zigilua dute". Ondorioz, pertsonak ematen duten diruaren arabera-ko hobaria izanen dute errenta aitortzearen (%80koa 150 eurora arte ematen dutenek, hortik gora ematen dutenek %40koa). Enpresek, berriz, kenkaria izanen dute sozietateen gaineko zergaren aitortzearen. Dirua ES11 3008 0045 9840 7184 5517 kontu korrontean sartu beharko da, *Aralarko santutegia Mezenazgoa* kontzeptua jarritz.

Bestetik, santutegiak jende ugari erakartzen du eta azalpen gehiago nahi dutenek gidatutako bisita dute aukeran. Garziandiak jakinarazi duenez, halako bisita



bat egin nahi dutenendako ordutegiak zehaztu dituzte. Astartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan izanen dira. Igandeetan, berriz, 10:30ean, 11:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Orain arte pertsona bakoitzak gidatutako bisitagatik 2,5 euro ordaindu behar zituen. Baina hemendik aurrera bisita gidatuak museo-rako bisita ere hartuko du bere baitan eta prezioa hiru eurokoa izanen da. Izan ere, Lakuntzetxe edo Deierri etxearen beheko solairuan santutegiari eskainitako museo dago lastailaren 16az geroztik.

## DUELA 25 URTE...



## Musikarien zaindariaren eguna

Santa Zezilia eguna larunbata zenez, musikariak kalera atera ziren. 7 eta 70 urte arteko txistulariak estreinako elkartu ziren "txuntxunero eguna" ospatzeko. Goizean kalejira egin zuten eta eguerdian kontzertua eskaini zuten. Bazkaltzera 30 txistuzale elkartu ziren. Haietaz aparte, Haize Berriak bandak eta Erkudengo Ama abesbatzak ere musika zabaldu zuten herrian barna.

# Kultur programazioan euskara gehiagoren eskea

Altsasun kultura euskaraz ainguratu gura ekimenak sinadura bilketari ekinen dio. Haur eta gazte programazio guztia euskaraz izatea, helduei zuzendutakoaren %25 euskaraz izatea eta kultur eskaintza urtetik urtera handitzeko plangintza eskatu du

ALTSASU

Herriko euskarazko kultur eskaintza "oso baxua" zela iritzita, eta hura handitzearen nahi eta beharra sentitzen zuten hainbat altsasuarrek Altsasun kultura euskaraz aingura gura ekimena sortu zuten. Festen ondoren horren inguruko kanpaina egin dute. Horretarako, hainbat altsasuarren errealitateak islatu dituzte: euskara ikasi eta euskaraz bizi ezin dena; etxean euskaraz bizitzeko ahalegin izugarria egin eta herrian aukerarik ez dutenak... Ekimeneko kideen iritziz, euskaraz bizitzeko hautua egin duten altsasuarrei "bidean ezartzen zaizkien oztopoen ondorioa guztiendako bera da: euskararen eta euskaldunon balio-gabetzea. Euskaldunon hizkuntza eskubideen marra gorria malgutu egin da, eta modu sotil batean egoera normalizatu dugu. Ondorioz, gaur egun, Altsasun euskaraz gozatzeko beharrezko eskaintza ez da nahikoa, ezta proportzionala ere", salatu dute. Altsasun kultura euskaraz aingura gura ekimeneko kideek gaztigatu dutenez, "herriangeroz eta euskaldun gehiagoez arren, euskarak herriaren duen espazioa ez da areagotu".

Ekimeneko kideek ziurtatu dutenez, "udalak euskarari muzin egin dio. Esaterako, hutsaren hurrengo bihurtu da Iortia kultur guneak euskarari eskaintzen dion espazioa". Altsasun kultura euskaraz aingura gura ekimenetik gaineratu dutenez, "euskara gure egunerokora heltzea ezinbestekoa da haren erabilera eragiteko. Horretan euskarazko kulturak paper erabakigarria jorratzen du. Horregatik, horren zainza bermatu behar dugu". Ziurtatu dutenez, "azken urteetan geroz eta handiagoa da euskarazko kultur eskaintza", eta adibide gisa antzerkia, musika eta zinema aipatu dituzte. Baina halakoen emandiririk ez da Al-



Ekimeneko kideek eskaerak aurkezteko prentsaurrekoa eman zuten.

## "ALTSASUARREN EGUNEROKORA EUSKARA IRISTEKO KULTURAK PAPER ERABAKIGARRIA DU"

tsasun "inbertsio eta apustu falta dagoelako. Euskarazko produktu gutxi ekartzeaz aparte, gainerako herrietan euskaraz eskainitakoa gurean gaztelaniaz eskaini dute behin baino gehiagotan. Euskarazko eskaintza ezak erdarako gorakada dakar".

### Neurriak hartzeko eskaera

Ekimeneko kideek kultur gune-ko azken hiru hilabeteko eskaintza aztertu eta honako ondorioa atera dute: "%16 inguru euskaraz izan da, %84 erdaraz". Eta jakinarazi dute Euskalgintzaren Kontseiluaren *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloak* kultura arlorako gomendioetako bat gogorarazi dute: "kultur programazioan euskararen presentzia udalerriko euskara ezagutza tasa baino %10 altuagoa izan behar du". Hori kontuan izanik eta Altsasun euskararen ezagu-

tza tasa %26,9 dela jakinik, "euskaldunon eskubideak bermatzeko kultur programazioan euskararen presentzia %36,9koa izan beharko litzateke. Egungoaren bikoitza baino gehiago". Horregatik, ekimenetik Altsasuko Udalarai neurriak hartzeko eskatu diote, "herriko euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatu" ditzen.

Eta norabide horretan bulkatzeko, Altsasun kultura euskaraz aingura gura ekimeneko kideek sinadurak biltzeari ekinen diote ekimeneko kideek heldu den ostegunetik aurrera. Hiru eskaerari babesa ematea eskatzen diete altsasuarrei. Lehenik, haurrei eta gaztetxoei zuzendutako kultur ekitaldien %100 euskaraz izatea. Bigarrenik, helduei zuzendutako programazioaren %25 gutxienez euskaraz izatea. Eta, azkenik, udalaren euskarazko kultur eskaintza urtetik urtera handitzeko plangintza osatzea. Sinadurarekin eskaera horiei babesa ematera animatu dituzte altsasuarrek. Sinadurak jasotzeko paperak toki publikoetan jartzeko asmoa dute. Horrekin batera, Internet bidezko sinadura bilketa eginen dute.





## Sareak josi eta indartu

Helburu hori zuen Emakumezkoen kontrako indarkeriaren aurkako egunaren kontura Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak eta EmHari taldeak antolatutako ekimenak. Ibarreko makina bat emakumek 500 bat oihal zati prestatu zituzten eta guztiak igandean josi zituzten EmHariko kideek, oihal erraldoia sortuz.



UTZITAKOA

## Nafarroa Oinez en aurkezpena

Sakandarrei festaren helburuak, leloa eta logotipoa aurkeztu zizkieten Arbizuko kiroldegian larunbatean egindako ekitaldian. Eta aukera baliatu zuten Oinezeko material berriarekin moda desfile jendetsu bat egiteko. Azken horretan ikastolakoez aparte ibarreko hainbat eragiletako ordezkariak parte hartu zuten, hala Nafarroa Oinez babestuz.

# Oinez, herrian dena pauso gutxitara dago

Altsasuko Udalak herrian oinez ibiltzera gonbidatu du. Altsasu barruan dauden distantziei eta desplazamendu-denborei buruzko informazioa ematen duten panelak jarri eta liburuxkak zabalduko ditu. Euskarrietako mapak metro-planoen itxura du

### ALTSASU

Iortia kultur gunea abiapuntu hartuz gero, Aita Barandiaran adinduen egoitzara joateko 489 metro ibili eta 5 minutu behar dira. Osasun etxera, berriz, 340 metro ibili eta 4 minutu. Eta halako beste hainbat ibilbideren luzera eta iraupena zein den zehaztu du Altsasuko Udalak, eta horien berri emanen duten bi panel egin eta liburuxkak argitaratu ditu, GK-k diseinatutakoak. Aurrenekoak autobus geltoki ondoko panelean eta udaletxe pareko paneletan jarri ditu. 6.000 liburuxkak, berriz, Altsasuko Dendarien Elkartearen laguntzarekin herritarren eta Altsasura erosketak egitera joaten direnen artean banatuko dira. Iortia kultur gunean eta udaletxean ere eskuragarri izanen dira. Bi euskarrietan QR kodea dago, hura eskaneatuta mapa mugikorrean eramateko aukera izanen da.

Altsasuko Udalaren *Herrian hobe oinez!* kanpainaren parte dira bi panelak eta liburuxka. Udalaren ekimen horren helburua da jendea animatzea autoa aparkaleku egokietan uztera eta herri barruko joan-etorriak oinez egitera. Aparkalekuek merkataritzak eta zerbitzu gunera joateko denbora ez da 5 minututik gorakoa.



Panelean tokien arteko luzera eta denbora distantziak irakur daitezke.

### Amandrea plaza

Aste honetan hasi dira Amandrea plazan Construcciones Lacunza SM enpresako kisugileak lanean. Lanen helburua da plaza guztiz eraberritzea, gaur egun zoruko porlana oso hondatuta baitago. Horrekin batera, garaieetan dauden ur sartzak eragozteko garaieen estalkia iragazgaitz bihurtzeko lanak egingen dira. Lan horiek egin ahal izateko Altsasuko Udalak eta plazako garaieetako jabekideen komunitateak hitzarmena sinatu zuten. Horren ondorioz alde bakoitzak lanen

zati bat ordainduko du. Haien aurrekontua 388.397,29 eurokoa (BEZ kanpo) da.

Uhaldera eta Kaltzada kaleen arteko orubea hesituta agertu zen aste hasieran. Inguruko auzokide askok uste izan zuten Nasuvinsa enpresa publikoak itxi zuela eremua. Izan ere, alokairurako izanen den etxebizitza blokea eraikitzekoa da. Altsasuko Udalak argitu zuenez, Amandrea plazako lanak egiten diren bitartean eraikuntzarako materialak bertan gorde eta pilatuko ditu enpresak.



**ZU NON, HAN DA!**

57. DURANGOKO AZOKA

### LIBURU AURKEZPENAK

Abenduak 15. 19:00

Urtzi Leonet. "Itzalen dama eta Patxi Bakallu"

Kaxeta (Etxarri Aranatz)

Abenduak 20. 18:00

Aisisko Urmeneta. "Amair! Libera State"

Iortia kultur gunea (Altsasu)







Lehendabizikoz Sakanako Harri Jasotze eskolan trebatutako emakume bat, Ane Cestau, aritu zen plazan.

# Etorkizuna badago

**HERRI KIROLAK** Uharte Arakilek Sakanako herri kirolarien erakustaldi ederra hartu zuen. Lehenengoz Sakanako Harrijasotze Eskolan trebatzen ari den emakume batek, Ane Cestauk, erakustaldia egin zuen

**Maidar Betelu Ganboa** UHARTE ARAKIL Igandean itxura ederra zuen Uharte Arakilgo plazak. Sakanako Mankomunitateak herri kirolari sakanadarren laguntzarekin antolatutako Sakanako Herri Kirol Eguna kirolari eta ikusle asko bildu zituen.

Sakanako Harri Jasotze Eskolako Mikel Lasarte monitorea hiru ikaslerekin zegoen: Aitor Oiarbide etxarriarra, Iker Golarazena berriozartarra eta Ane Cestau iruindarra. Lehenengo aldiz, Sakanako eskolan trebatutako emakume bat aritu zen harriak jasotzen. Beste emakume bat ere trebatzen ari da eskolan, Maika Iraizoz. Erakustaldi bikaina egin zuten hirurek.

Sakanako Aizkora Eskolako ikasleak ere aritu ziren lanean. Lehendabiziko txandan, Amets Aristizabal eta Joan Goikoetxea eta Eñaut eta Aritz Oiarbide,

eskolako monitorea Juanito eta Juanjo Erdoziaren begiradapean. Oiarbidetarrak gailendu ziren. Ordurako Andra Mariko sokatira taldekoek gerrikoak ongi estututa eta goman ongi kokatuta zeuden, Belen eta Nerea Berastegi ahizpen esanetara tiraldiak egiteko prest. Ikasten ari diren teknikaren emaitza onez gozatzeko aukera izan zuten plazan bildutakoek.

Trontzalarien txanda izan zen segidan. Andra Mariko Amaia Razkin eta Maddi Beltza, batetik, eta Jokin Campos eta Adur Lizarraga, bestetik. Bi txandatan

**SAKANAKO HARRI JASOTZE ETA AIZKORA ESKOLEK FRUITU EDERRA EMATEN JARRAITZEN DUTE**

aritu ziren, Jesus Senar eta Mikel Senarren begiradapean. Ekitaldiarekin jarraitzeko, Sakanako Aizkora Eskolan trebatzen diren txikien erakustaldia izan zen. Urko Oiarbide, Ibai Galarza, Eneas Aristizabal eta Aratz Beltza igo ziren enbor gainera, eskolako nagusien laguntzaz. Txalo zaparrada be-roenak beraiendako izan ziren. Bukatzeko, aizkolari nagusien txanda izan zen. Juanjo Erdozia eta Aritz Oiarbide, Goizeder Beltza eta Eloy Corchero eta Arkaiz Jauregi eta Iker Gorriti lehiatu ziren. Arza epailearen begiradapean, Beltza eta Corchero alde gutxigatik gailendu zitzaizkien Jauregiri eta Gorritiri. Erdozia eta Oiarbide osaba-ilobak itxi zuten sailkapena.

Beste behin, ederra izan zen Sakanako Herri Kirol Eguna. Bereziki, etorkizuna badagoelako.



Andra Mari taldeko tiratzaileak, tiraldia hasteko prest.



Andra Mariko trontzalariek, lanean.



Sakanako Aizkora Eskolakoak beharrean.



Txikienek nagusien laguntza izan zuten.



Maila nagusiko aizkolariak bikoteka aritu ziren, lehia bizian.





Iskiza Sakanako lehiaketa taldekoak, Nafarroako Txapelketa irabazi berriren, Olaia Agirre entrenatzailearekin. ISKIZA

# Txapeldunen urte biribila

**GIMNASIA ERRITMIKOA** Iskiza Sakana lehiaketa taldekoak Nafarroako txapeldunak dira eta Espainiako Txapelketan lan ederra eginez itxi dute denboraldia. Iskizako gainontzeko taldeekin batera Gabonetako erakustaldia prestatzen ari dira, ilusio handiz

**Maidar Betelu Ganboa** SAKANA Iskiza Sakana Gimnasia Erritmikoko lehiaketa taldeak denboraldi ederra itxi berri du. Urriaren 1ean Nafarroako Txapelketa irabazi eta gero, azaroaren 18an Jerez de la Fronteran jokaturako Espainiako Gimnasia Erritmikoko Oinarrizko Txapelketan lan bikaina egin zuen, junior mailan 132 talderen artean 56. sailkatu baitzen. "Espainiako talde onenak zeudela kontuan hartuta, hori lan oso ona da" Olaia Agirre Iskizako koordinatzailearen hitzetan.

Ane Iturrioz, Amaia Marin, Beatriz de Sousa, Iruñe Etxaniz, Nagore Erdozia eta Naroa Diaz gimnastek osatzen dute Iskizako lehiaketa taldea. Olaia Agirre da entrenatzailea, eta oso pozik dago taldeak egindako lanarekin, "aurtengoa ez dela oso denboraldi erraza izan" kontuan har-

tuta. "Olinpiar Jokoen ondoren Nazioarteko Gimnasia Erritmikoko Federazioak gimnasia erritmikoko ariketen araudia aldatu egiten du. Araudi berria ohitzea zaila da, baina aurten gogorragoa izan da astero iristen zelako arau berriren bat, azalpenen bat, eta, ondorioz, etengabe genuelako zerbait aldatzeko. Pentsa, Espainiako Txapelketa baino aste bat lehenago beste arau bat atera zen, eta ariketa zertxobait moldatu behar izan genuen. Izugarria izan da. Horregatik taldeak lortutakoak

**"ESPAINIAKO TXAPELKETATIK POZIK ETORRI DIRA, 2023RAKO MOTIBATUTA" OLAIA AGIRRE**

merezimendu handiagoa du" azaldu du Agirrek.

**Arau berriekin bueltaka** Gimnasiako ariketa bat ongi erakusteko gimnasten arteko sinkronizazioa ezinbestekoa da, eta horren atzean lan izugarria dago. "Horretarako behin eta berriz errepikatu behar dira ariketak. Behin eta berriz. Lan horretan ari zarela esaten badizute araudi berriari ezin dela mugimendu konkretu bat egin eta zuk mugimendu hori jasota bazenuen, pentsa alferrik galdutako lana eta denbora. Eromena izan da, baina buelta eman diogu" gaineratu du.

Denboraldia irailaren azken asteburuan hasi zuen Iskizako lehiaketa taldeak, Gasteizen. Federazioak urtero zehazten du zein aparaturekin prestatu behar dituzten ariketa eta koreografiak,

eta aurten uztaiak eta mazak ziren aparatua. "Guk bi uztaie eta hiru maza pare erabili ditugu koreografiak egiteko". Urriaren 1ean Nafarroako Txapelketa irabazi zuten, Mendillorri, "bigarren urtez, esango nuke", eta ondotik Naxera, Gernika, Elburgo eta Utebo (Zaragoza) herrietako txapelketetan aritu ziren. "Utebokoa oso txapelketa polita izan zen. 26 talde lehiatu ziren, eta seigarrenak sailkatu ziren". Azaroaren 18an Espainiako Txapelketaren txanda izan zen -132 talderen artean 56. sailkatu ziren-, eta aurreko asteburuan Nafarroako Foru Komunitate Sarian parte hartu zuten, Anaitasunan. "Oso pozik gaude, egia esan. Nafarroako txapelkunak izan dira, Espainiakoan oso ongi aritu dira eta gainontzeko txapelketatan ere maila ona eman dute" berretsi du Agirrek. Taldearen lorpena Olaia Agirreraren meritua bada; gimnastek eta entrenatzaileak tandem bikaina osatzen dute.

Gabonetako erakustaldiaren ondoren 2023 denboraldia prestatzen hasiko dira. "2023an pilotarekin eta zintarekin izango dira ariketak, federazioak hala erabakita. Zinta zailena da, teknika konplexuena duelako. Zintak ezin du inoiz lurra ukitu, besteak beste. Orain, zerotik hasiko gara: 2023ko ariketetako musika aukeratu, zinta eta pilota araudi berriarekin borrokatu, koreografiak prestatu...

baina taldeak ilusioa du. Jerezetik poz-pozik etorri ziren, hurrengo denboraldirako motibaturata, eta horrela lan egitea polita da guretako" aitortu du Agirrek.

## Gabonetako erakustaldia

Abenduaren 17an izango da Iskizako Gabonetako erakustaldia, Zelandin. Lehiaketa taldeaz gain, eskolako taldeak eta Nafarroako Kirol Jolasetako taldeak ariko dira. Guztira 60 gimnasta inguru dira, eta erakustaldia prestatzen buru-belarri dabilta. Olaia Agirrerarekin batera Maria Remolina, Irati Begiristain, Olaia Granizo eta Ainhoa Imaz dira monitoreak. Horretaz gain, aurten sortu den Arbizuko gimnasia erritmikoko taldeak parte hartuko du erakustaldian. "Arbizuko taldea Iskizarekin lotuta dago. Monitorea Iskizako Ainhoa Imaz da, eta gure erakustaldietan parte hartuko dute. 19 gaztetxok eman dute izena Arbizun, harrera ona izan du taldeak" dio Agirrek.

Sakandar guztiak gonbidatu ditu erakustaldira. "Oso polita izango da. Gimnasia erritmikoko talde asko egongo dira, dantza eta koreografia ezberdin asko, musika ezberdinekin, eta aparatua guztiak ikusi ahalko dira. Sakanan ere gimnasia erritmikoko gozatzeko aukera dago, eta etxeko gimnastekin, gainera. Ongi etorriak zarete" egin du gonbita.



Iskizako gimnasta, Espainiako Gimnasia Erritmikoko Txapelketan. ISKIZA





Markos Beraza Irañetan, Espainiako Senior B Mailako Enduro txapelketa irabazlearen irudia. UTZITAKOIA

# "Ez dakit non, norekin eta nola, baina asteburuan ospatuko dugu"

**MARKOS BERAZA VITORIA MOTOR GIDARIA**

**ENDUROA** Irañetako motor gidariak azaroaren 20an Espainiako Senior B Mailako Enduro Txapelketa irabazi zuen Santiago de Compostelan

**Maidar Betelu Ganboa** IRAÑETA

Markos Beraza Vitoria irintarra 12 urterekin hasi zen motor txapelketetan parte hartzen, moto-krosean, juniorrekin batera, "bestela ez baitzegoen lasterketetan aritzeko aukerarik". Gaur egun 26 urte ditu eta azaroaren 20an Espainiako Enduro Txapelketa irabazi zuen bere kategorian, Senior B mailan, Santiago de Compostelan.

**Haurra zinela hasi zinen motorrean.** Nire bi anaiak motorrean ibiltzen ziren, nik ere gustuko nuen eta

horregatik hasi nintzen, beraiei segika, zaletasunagatik. 12 urte nituela parte hartu nuen lehen aldiz lasterketa batean. Orduan ez ginen haur asko ibiltzen, eta junior kategorian zen gazteena. Eta junior mailan lehiatu nintzen

**"AZKENALDIAN BETI BIGARREN NINTZEN, BAINA ESPAINIAKO TXAPELDUNA IZATEA LORTU DUT"**

lehen aldiz, askoz ere helduagoak ziren gazteekin. Ez nintzen larritzen, ze erremedio! Juniorrekin parte hartzea, edo ezer ez, hori zen zegoen aukera bakarra. Gogoan dut nire lehendabiziko bi lasterketetan anaiak izan nituela atzean, zaintzeko. Baina hortik aurrera jada bakarrik lehiatzen hasi nintzen.

**Enduroan, moto-krosean eta cross countryan aritzen zara. Zein dira hiruren arteko ezberdintasunak?** Moto-krosa zirkuitu itxi batean jokatzeko den lasterketa da. Salto

handiak eta denetariko trabak ditu. Edozein motorrekin aritu daiteke, baina hobe moto-kros motorrekin bada. Cross countrya bi orduko erresistentzia lasterketa da, zirkuitu itxi batean egiten dena. Enduro edo moto-kros motorrekin parte har daiteke. Eta enduroa aurreko bien nahasketak antzeko bat da. Basoan 50-60 kilometroko zirkuitu bat prestatzen da, eta zirkuituko hiru toki ezberdinetan kronometratutako guneak daude, hiru gune, saltokien eta bestelakoekin. Bospasei ordu irauten du enduro lasterketak. Kronometratutako gune bakoitza 10 minutu ingurukoa da. Gune horietan topera aritu beharra dago, eta puntu batetik bestera joateko loturretan, ordea, azkar bai, baina ez duzu topera joan beharrik.

**Hiruretan enduroa duzu gustukoa.**

Bai. Moto-kros eta cross country lasterketetan ere aritzen naiz, baina enduroa entrenatzeko.

**Zenbat motor izan dituzu?**

(Kar, kar...) Ez dakit esaten. Ez ditut kontatu, baina 2008 urtetik hona motor bat erabiltzen dut denboraldiko, gutxi gorabehera.

**Zergatik aldatzen duzu motorra urtero? Lehertzen duzulako?**

Alde batetik, motor berri bat beti da berria. Motorra aldatzea ez da kapritxo kontua. Denboraldian motorrei kaña handia ematen diegu. Gainera, lehiaketan aurrean gaudenei motor etxeak prezio merkeagoa egiten digu. Hortaz, motorra saldu eta lortutako diruari zerbait gehituta motor berria erosten dugu.

**Goiko postuetan lehiakor izaten jarraitzeko pilotuek motorra berri behar izaten duzue?**

Bai, lehiakorrak izateko motor ona izatea ezinbestekoa da.

**Zein da zure motorra?**

Ni KTM motorren zalea naiz. Izugarri gustuko ditut, eta, gainera, fidagarritasun handiena duten motorrak dira. Motorren Mercedesak dira KTM-ak. Nirean lau eta erdiko KTM motorra da. 2023 urte hasierara arte erabiliko dut, eta denboraldia hasten denean, otsaila bukaeran, berria hartuko dut.

**"12 URTEREKIN HASI NINTZEN LEHIATZEN, JUNIORREN PROBETAN, HAURRENAK EZ ZEUDELAKO"**

**Husqvarna etxeak deituko bazintu kontratatzen zaituela esateko, motorra aldatuko zenuke?**

Pentsatu gabe Husqvarnarekin joango nintzateke (kar, kar...). KTM motorra nik ordaintzen dut, eta beste etxean oparituko balidate...

**Abiadura motoziklismoan motorra ongi doitzea eta ajustatzea lan luzea da. Enduroan baita ere?**

Pilotuaren araberakoa izaten da. Niri asko kostatzen zait motorra nire gustura jartzea, txikikeria guztiak neure gustura jarri behar ditut.

**Mekanikariren baten edo talderen baten laguntza duzu parte hartzen dituzuen txapelketei aurre egiteko?**

Bai. Mekanikaz justua dakit. Santanderko denda batek laguntzen nau, Zona Paddock izenekoak. Lasterketa batera joaten naizenean dendako norbait etortzen da asistentzia egitera. Horretaz gain, Ruben eta David anaiak etortzen dira laguntzera, eta baita lagunak ere.

**Anaiak motorraren munduan jarraitzen dute?**

Orain ez dira lasterketetan ibiltzen, baina lehen bai. Orain ni ikustera, animatzera eta laguntzera etortzen dira.

**Lasterketetan hasi bezain pronto hasi zinen nabarmen izateko probak irabazten. Ba al dakizu zenbat lasterketa irabazi dituzun?**

Ez ditut zenbatuta, baina asko dira. Trofeo asko ditut enduroan, moto-krosean eta cross countryan. Hiru modalitateetan Nafarroa, Euskadi eta Zona Norteko ia txapelketa guztiak irabazi izan ditut. Nafarroako, Euskadiko eta Zona Norteko txapelketa irabazi izan naiz, baina ez dakit zenbat aldiz. Azkenaldi honetan sarritan Espainiako Txapelketetako probekin batera izaten dira, eta horregatik urte bukaeran ez naiz txapelketa, Espainiako probetan nagoelako.

**Noiz hasi zinen Espainiako Enduro Txapelketan parte hartzen?**

16 urte nituela, junior mailan. Junior mailan bi aldiz Espainiako Enduro txapelketa irabazi izan naiz. Egun senior mailan parte hartzen dut, Senior B mailan. Espainiako Enduro Txapelketan bi maila daude: A maila, elitea, futboleko lehen maila litzatekeena, eta B maila, bigarren maila balitza bezala. A mailan eliteek parte hartzen dute, babesle handiak dituzten pilotuek, nolabait horretatik "bizi" direnak eta egunero horretan ari direnak. B





Markos Beraza Vitoria, enduro txapelketako lasterketan. UTZITAKOA

mailan gaudenak beste ogibide batzuk ditugu, eta gure aisialdian aritzen gara motorrarekin. A eta B mailakoak elkarrekin aritzen gara lasterketatan, baina beraiek agian zirkuituari lau itzuli egiten dizkiote eta guk bat gutxiago.

### Espainiako Senior B mailako Enduro Txapelketa irabazi duzu, meritu handiz. Zorionak!

Eskerrik asko! Espainiako Senior B mailan nire kategorian lau denborako motorra da, baina nire kategorian irabazteaz gain, sailkapen orokorra edo absolutua irabazi dut. Oso pozik nago. Azkenaldi honetan beti txapeldunordea izaten nintzen, beti bigarren, eta aurten Espainiako txapelketa irabaztea lortu dut. Ez da ere aparteko lorpena, gurea B maila delako, bigarren maila, baina bada zerbait.

### Zenbat proba zituen Espainiako Enduro Txapelketak?

Aurten zazpi lasterketa zituen. Asturiasen, Murtzian, Alacanten, Bartzelonan... azken proba azaroaren 19an eta 20an izan zen, Santiago de Compostelan. Txapelketako lehendabiziko bi lasterketak nik irabazi nituen, hurrengo biak bigarren sailkatu denak, Almeriako Jesus Duartek... lehia ederra izan dugu biek. Duartek ere KTM motorra du, bi eta erdikoa. Beraz, KTM-en arteko borroka izan da. Azkenean txapelketa irabaztea lortu dut eta oso kontentu nago.

**Gainera, sakandarrak eta bestelako lagunak gerturatu zitzaizkizun Santiagora, egunerako propio prestatutako kamiseta jantzita, zu animatza.**

Bai, ikusi nituenean... horrek bai ilusionatu ninduela. Guztiz. Hori izan zen eguneko hoberena. Irañe-

ta, Altsasu, Iruñea eta inguruko jendea etortzen da normalean ni animatzera, eta izugarri eskertzen diet.

### Kisuskile zara. Nondik ateratzen duzu entrenatzeko tartea?

Bereziki asteburuetan entrenatzen dut, eta udan lanetik etortzen naizenean, gauez. Irañetan dugun zirkuituan entrenatzen dut batez ere. Udalak zirkuitua prestatzeko baimena eman zigun, eta han aritzen gara. Urtero lasterketa egiten dugu Irañetan, eta harre- ra ona izaten du. Bestalde, Altsasuko zirkuituko bazkidea naiz ere eta tarteka bertan aritzen naiz.

### Txapeldun izanda, 2023an berriro lehiatzen jarraituko duzula pentsatzen duzue?

Berriro ere Espainiako Enduro Txapelketan lehiatzeko asmoa dut. Txapelketa otsailaren bukaeran hasiko da, eta, ez badago inolako arazorik, bertan ariko naiz, gogotsu.

### Espainiako Enduroko A mailara salto egitea nahiko zenuke?

Posible nuke, baina baina ez dit merezi. Maila horretan aritzeko

## "SANTIAGON LAGUNAK AGERTU ZIRENEKOA IZAN ZEN HOBERENA, NIRE ALDEKO KAMISETA ETA GUZTI"

## "IRAÑETAKO ZIRKUITUAN ENTRENATZEN DUT. BAITA ALTSASUKOAN ERE, BAZKIDEA NAIZ"

diru asko inbertitu beharko nuke, baina ez badaukat pilotu horiek entrenatzeko duten denbora bera, zertarako? Beraiek horretara daude bakarrik, eta ni ez. Ez nintzateke baldintza berberetan egongo. Hortaz, ez du merezi. Duela hiru urte, pandemia baino lehen, A mailan nengoen. Baina puntu bat iritsi zen ez nuena behar bezala entrenatzen ez fundametu- tuz lan egiten. Beraz, ni B mailan ongi nago. Nire zaletasunarekin jarraitzen dut, antzeko maila dugun bizpahiru pilotu gaude, eta gustura ibiltzen gara. Horrekin kontentua.

### Zer esaten dizute etxekoek eta gertukoek?

"Zuk ikusiko duzu", diote, baina gero beti babesten eta laguntzen naute. Anaiak ni ikustera joaten dira. Ilobak ere, oso motorzaleak direlako. 8 urteko iloba bat, neska, eta beste iloba bat, mutikoa, biak motorrarekin ibiltzen dira. Beraieendako haurren talde bat egin dugu, eta zortzi haur daude.

### Nola du izena taldeak?

Team Beraza. Bi ilobak, beste bi iruindar, Alloko beste bat, Eloorrioko beste bat... gustura ibiltzen gara haurrekin. Mundu honetan sartzen hasi dira, eta gustura dabilta.

### Espainiako enduro txapelduna zarelara behar bezala ospatu al duzu?

Oraindik ez, asteburu honetan ospatuko dugu. Larunbatean, abenduak 3, bazkaria antolatu dute lagunak, baina ez didate ezer gehiago esan. Larunbat eguerdirako prest egon behar dudala esan zidaten, eta nire bila etorriko direla. Beraz, ez dakit non, norekin eta nola, baina Espainiako Enduro Txapelketa ospatuko dugu. Sorpresa da.



Irigoien eta Lopez, Malerrekako Rallyko ibilbidean jokatutako Solo Renault proban. AVM

## Arkaitz Irigoien eta Raul Lopez, Doneztebeko podiumean

**AUTOMOBILISMOA** Malerrekako Rallyko ibilbidean jokatutako Solo Renaulteko Turbo kategorian bigarren izan ziren

### Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Asteburuan VI. Malerrekako Rallya jokatu zen, rally gogorra eta ikusgarria. Rally ezaguna antolatzen zela probestuz, Renaultek I. Solo Renault Group 2022 lasterketa antolatu zuen, ibilbide berean. Lehendabizi Malerrekakoak aritu ziren, eta ondoren Solo Renaultekoak. Renault etxeak gonbidatuta, maila handiko pilotuak hurbildu ziren Doneztebera: Jorge Cagiao Renaulteko pilotu ofiziala (Clio Rally4), Carlos Sainzen anaia Antonio Sainz (R5 Copa), Javier Martinez (R5 GT Turbo)... Bezperan lasterketa aurkezteko ekitaldia antolatu zuten Iruñeko Renaulten, eta han izan ziren Sakana Motorsporteko Arkaitz Irigoien Barandiaran pilotu baikaikuarra eta Raul Lopez Bartolome kopilotu olaztiarra (Clio Maxi). "Sekulako ikuskizuna izan zen" diote.

### Rally "ikusgarria"

Larunbatean jokatu ziren VI. Malerrekako Rallya eta I. Solo Renault Group lasterketa, egun osoan. Malerrekako Rallyan Sakana Motorsporteko Iker Askargorta Zozaia eta Aitor Fernandez Ganuza olaztiarrek parte hartu zuten (Astra GSi). Lan ona egin zuten, rallya bera despeditzea arrakasta izan baitzen, 19 autok lasterketa utzi behar izan baitzuten. "Lasterketa ikusgarria izan zen. Erekuak azkarrak ziren, bezperako euriarengatik bustiak eta hezeak. Espero genuena baino azkarrago ibili ginen

eta Malerrekako zegoen maila handia kontuan hartuta, emaitza ona izan zen" azaldu du Askargortak. Malerrekako Rallya Jorge Cagiao izan zen (Clio Rally 4, 50:06.300-eko denbora) eta Askargorta eta Fernandez hamahirugarren (57:08.400). Bestalde, Iñigo Galarza iturmendiarrak Malerrekako Motorsport eskuderiako Alvaro Gutierrez pilotuarendako kopilotu lanak egin zituen (Saxo VTS) eta hemeretzigarren sailkatu ziren (1:00:08.600).

### Behetik gora

I. Solo Renault Group lasterketan "behetik gora" egin zuten Arkaitz Irigoienek eta Raul Lopezek. Maila honetan bederatzita taldek proba utzi behar izan zuten. "Guk lasterketa bukatzea nahi genuen, kosta ala kosta, aurreko edizio batean Arkaitzek ezin izan zuelako despeditu. Eta lortu genuen" azaldu du Raul Lopezek, kontentua. "Proba zaila izan zen. Lurra bustita zegoen, tarte batzuetan hosto erori asko zeuden eta bihurgune batzuk guztiz lokaztuta zeuden" oroitzen du. Azkenean zortzigarren denborarik onena egin zuten (57:30.800), Kastinparro Racing taldeko Ioritz Odiaga eta Iker Mientegia txapeldunetatik (Megane) 5 minutura (52:08.100), eta Solo Turbos mailan bigarrenak izan zirenez, podiumera igo ziren. "Autoari zentralita aldatu genion eta azkarrago dabil. Probak egiten gabiltza" dio olaztiarrek, ilusioz. Denboraldia bukatuta, datorreneko gogotsu daude.





Hiru sakandarrek batera.

## PILOTA Binakakoak hiru sakandarren derbia dakar

Asteburuan Binakako hasierako ligaxkako bigarren jardunaldia dago jokoan, derbi sakandarra izango duena. Amorebieta-Zornotzak kalitate handiko partida hartuko du gaur, ostirala: Ezkurdiak eta Martijak Elordi eta Zabaleta izango dituzte aurkari. Bi bikoak irabaztetik datoz, sasoi onean daude eta bigarren puntua lortu nahi dute.

Bestalde, Joanes Bakaikoa etxarriarrak eta Aimar Morgaetxebarriak ongi ekin diote Promozio Binakakoari, 22 eta 13 gailendu baitziren Zubizarretaren eta Elizegiren kontra. Gaur, ostirala, Amorebieta Etxanoko jaialdia zabaltzen duen partidari, Larrazabal eta Eskiroz izango dituzte aurkari.

# Urdiaingo Ziklokrosa, Nafarroako Txapelketa

**ZIKLO-KROSA** Burunda Txirrindularitza Klubak antolatuta, kadeteen eta jubenilen mailako proba izateaz gain, aurten elite eta 23 urtez azpiko mailan jokatu da ere. Igandean, abenduaren 4an izango da, Aitziber futbol zelaia ardatz duela

**Maidar Betelu Ganboa** URDIAIN

Igandean jokatu da Urdiain Ziklo-krosa, III. Benigno Mendia 'Kani' Oroimenezkoa, Burunda Txirrindularitza Taldeak Nafarroako eta Euskadiko Txirrindularitza Federazioen laguntzarekin antolatutako lasterketa berezia. Aurten nobedadeekin dator, kadeteek eta jubenilek parte hartzeaz gain, afizionatuen mailako eliteek eta 23 urtez azpikoek ere parte hartuko dutelako. Horrela, 10:30ean kadeteen proba abiatuko da, gizonezkoena eta emakumezkoena, 11:30ean jubenilen lasterketa, gizonezkoena eta emakumezkoen Opena, eta 12:30ean gizonezkoen afizionatuen mailakoa. Burunda klubak lasterketa berezi eta ikusgarria jarraituzera animatu ditu sakandarrek.

**Aitziber, ardatz**

Aitziber futbol zelaia ardatz hartuta, 2,9 kilometroko zirkuitua prestatuko dute Burundakoek.



Txirrindularia traba gainditzen. M. EARLY

Lasterketa Felipe kale parean hasiko da, Urdiaingo behealdean, eta tropela frontoiraino igo ondoren, ezkerrean egin eta Aitziber futbol zelaira sartuko da. Hango larreetan itzuliren bat eman ondoren, gora egin eta Ka-

miozar kaletik herrira sartu eta parkeraino iritsiko dira; partzelarian aurrera egin eta, larreetan sartu eta behera eginez, atzera ere futbol zelai parera agertuko dira txirrindulariak. Beheraino jarraituko dute eta Sagardia kaletik Urdiaingo sarrerako kalera aterako dira. Helmuga frontoi parean egongo da. Ibilbidean asfaltoa, belarra, pista, lohia, aldapak, denetariko trabak eta bestelakoak aurkituko dituzte txirrindulariek. "Zuzenean ikusteko oso lasterketa polita" dela diote zaletuek.

Joan zen urtean euria, hotza eta lokatz handia izan zituzten bidaide Urdiaingo proban aritu ziren txirrindulariak. Kadeteetan Quesos Albeniz-Burundako Ekain Imaz eta Andoaingo Txirrindularitza Eskolako Izaro Etxarri gailendu ziren, eta juniorretan Suministros Zadorrako Beñat Fernandez de la Peña eta Amaia Lopez de Uralde. Hirugarren Mikel Uncilla izan zen.



## Etxarriko txakurkrosa, egun osoan

**TXAKURKROSA** Triku Trail taldeak antolatuta, abenduaren 10ean jokatu da Etxarri Aranatzko Txakurkrosa, kanpinean. Txakurrei lotuta egiten den lasterketa bizi eta ikusgarria da. Berrikuntzak daude, aurten egun osoko proba izango baita. 9:00etan 6 km-ko scooter, bikejoring eta txakurkros lasterketak jokatu dira, eta 17:30ean 4 km-ko lasterketak.



## Zubetia lasterketa, ate joka

**ATLETISMOA** Orain arte Altsasuko Zubetia elkarteak antolatzen zuen Oinezko Herri Lasterketa-Alberto Memorialak izen berria izango du hemendik aurrera: XLI. Zubetia Elkartea Lasterketa- I. Candi Aranz Memoriala. Abenduaren 8an jokatu da, 11:30ean eta izena ematea zabalik dago Dantzaleku Sakana klubaren webgunean (3 euro).

## FUTBOL PREFERENTEA

12. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Beti Casedano - Altsasu	1-0
Etxarri Aranatz - Univ. de Navarra	2-4
Ilunberri - Lagun Artea	4-2

### SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA	
1 Universidad de Navarra	27
6 Altsasu	18
16 Etxarri Aranatz	10
18 Lagun Artea	5

### HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATA, ABENDUAK 3	
12:00 Etxarri - Lezkairu (San Donato)	
15:30 Altsasu - Ilunberri (Dantzaleku)	
IGANDEA, ABENDUAK 4	
16:45 U. Navarra - Lagun A. (Universidad)	

### Altsasuk Lezkairu hartuko du

Altsasuk galdu egin zuen bigarren den Beti Casedanoren kontra eta larunbatean Ilunberri hartuko du, Dantzalekun.

### Etxarri vs Lezkairu, arerio zuzenak

Etxarri liderraren kontra azken unean galdu eta gero, Lezkairu arerio zuzenaren kontra hiru puntuak eskuratu nahi ditu.

### Lagun Artea liderraren kontra

Lagun Arteak partida zaila du aurretik, Etxarriren kontra lidergoa lortu zuen Universidad de Navarra baitu aurkari.

## EMAKUME PREFERENTEA

9. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Altsasu - Valle de Egües	1-3

### SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENT. 1. MULTZOA	
1 Mutilvera B	23
6 Altsasu	10

### HURRENGO JARDUNALDIA

ABENDUAK 10 EDO 11	
Idoya - Altsasu (Oteiza)	

### Altsasuk seigarren jarraitzen du

Asteburuan atsedean hartuko du ligak. Hurrengo arerioa Idoya da.

## FUTBOL ERREGIONALA

11. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Altsasu B - San Jorge	0-3

### SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA	
1 Beti Onak B	31
10 Altsasu B	11

### HURRENGO JARDUNALDIA

ABENDUAK 10 EDO 11	
Zizur - Altsasu B (Zizur)	

### Altsasuri atsedena ongi etorriko zaio

Azken asteko joerak ahaztu, eta atsedena eta gero Zizur izango du arerio.



## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / [kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

## OSTIRALA 2

## ALTSASU Gazte agenda.

Mural margoketa.

**18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.**

## URDIAIN Bertso saioa.

Sakana Tour Hegan Bertso saio tematikoa: Endika Legarra eta Ainara Iregi, Akain Alegre eta Sarai Robles eta Idoia Granizo eta Peio Ardaz bertsolari bikoteekin. Gai jartzaileak Jone Rubio eta Yasmine Khri. Pintxo potea Urdiaingo Gazte Asanbladaren eskutik.

**19:00etan, gaztetxean.**

## ETXARRI ARANATZ Emanaldia eta solasaldia.

Euskal Herrian Euskarazen *Egia, aitortza, erreparazioa* emanaldi eta solasaldi zikloa: ANTI film laburraren eta bizipenen bilduma bideoaren emanaldia eta solasaldia.

**19:30etan, gaztetxean.**

## ETXARRI ARANATZ Aurkezpena.

Zama Doinuz Arindu zortzigarren edizioaren aurkezpena. Ondoren, auzatea.

**20:30etan, plazan.**

## LARUNBATA 3

## IRURTZUN Kontzertua.

Nafarroako Eguna: Arturo Kanpion abesbatzaren kontzertua.

**12:00etan, San Martin elizan.**

## UHARTE ARAKIL Kontzertua.

Nafarroako Eguna: Irurtzungo abesbatzaren kontzertua.

**12:00etan, parrokan.**

## LAKUNTZA Kontzertua.

Nafarroako Eguna: Tuterakantuz abesbatzaren kontzertua.

**13:00etan, kultur etxean.**

## ETXARRI ARANATZ Pala

## txapelketa.

XVIII. Gure Pilota Emakumezkoen Sakanako Pala Txapelketaren bigarren jardunaldia.

Lehen maila: Sarasibar – Saralegi / Lusarreta – Eizmendi, Kerejeta – Artazkoz / Aldasoro – Lopez  
**16:30etan, frontoian.**

## IRURTZUN Pailazoak.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan *Urteak bete, abenturak bizi!* ikuskizunaren emanaldia, Aizpea euskara taldearen Euskal Ekitaldiak programaren barruan.

**17:00etan, kiroldegian.**

## ALTSASU Trukaketa.

Jolas trukaketa. Iñigo Aritza ikastolak, Txantxari ludoteka eta Altsasuko, Olazitiko eta Ziordiako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak antolatuta.

**17:30etik 19:30era, Gure Etxean.**

## ALTSASU Gazte agenda.

Euskaraokea.

**18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.**

## OLAZTI Irakurle taldea.

Jokin Azketa idazlearen *Lo que la nieve esconde* liburuari buruzko solasaldia idazlearekin.

**19:00etan, liburutegian.**

## ALTSASU Antzerki musikala.

Demode konpainiaren *Kutsidazu bidea Ixabel* musikala antzezlanaren emanaldia.

**19:30etan, Iortia kultur gunean.**

## IGANDEA 4

## URDIAIN Txirringularitza.

Ciclocross Nafarroako Txapelketa Benigno Mendia hirugarren memoria.

**10:30 Kadeteak.****11:30 Jubenilak.****12:30 Elite eta Sub23.**

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU &gt;

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

## Vasil gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Ostirala 2 19:00  
Igandea 4 19:30

## DC Supermaskoten liga familiarteko filmaren emanaldia euskaraz

Igandea 4 17:00

## La mujer Rey gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Osteguna 8 19:30  
Ostirala 9 19:00  
Igandea 11 19:30

## Historias para no contar gaurkotasunezko filmaren emanaldi

Osteguna 15 19:00  
Ostirala 16 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

## Sintiéndolo mucho zineforum filmaren emanaldia

Igandea 4 19:00

## El gran Maurice zineforum filmaren emanaldia

Osteguna 8 19:30  
Igandea 11 19:30

## Kepa Junkera: Bepiztu zineforum filmaren emanaldia

Osteguna 15 19:00



## OSTIRALA 2

## LAKUNTZA Pitxo potea.

Pintxo-Mintza-Pote-Praktika ekimena, Eztanda txarangarekin. Ariketaren amaiera eta ohitura aldaketaren hasiera.

**Arratsalde, plazan.**

## ZORION AGURRAK



## Arturo eta Mari Cruz

50 urte eta segi aurrera! Zorionak etxekoan partez!




## Hartz Lazkoz Ginea

Zorionak tesoro! Astelehenean 10 urte beteko dituzu! Eguna ona pasa eta muxu pila bat aitatxo, Ainetz, Lizarragakuek eta amiñen partez!




## EGURALDIA ASTEBURUAN


## Ostirala, 2




## Larunbata, 3



## Igandea, 4



## Astelehena, 5



**Er<sup>v</sup>iti** aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | [info@aluminioeserviti.es](mailto:info@aluminioeserviti.es)

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Azkartasun handiko zerbitzua



« AURREKO ORRIAN HASTEN DA

**ETXARRI ARANATZ Pala txapelketa.**

XVIII. Gure Pilota Emakumezkoen Sakanako Pala Txapelketaren bigarren jardunaldia.

Elite maila: Espinal – Irati Igoa / Salanueva – Maider, Miren – Irati Ruiz de Alda / Galdos – Eizmendi.  
**11:00etan, frontoian.**

**ALTSASU Elkarretaratzea.**

*Euskal preso eta iheslariak etxera.*  
**20:00etan, plazan.**

**ASTELEHENA 5****ALTSASU Elkarretaratzea.**

Pentsio duinen alde.  
**12:00etan, udaletxearen aurrean.**

**OSTEGUNA 8****ALTSASU Lasterketa.**

Zubeztia elkartearen XLI. Lasterketa Candi Arnanz I. memoriale.  
**11:30ean, Gartzia Ximenez**

*kalean udaletxearen parean.***IRURTZUN Kalejira.**

Irurtzun Kantuan taldearen topaketa. Aizpea euskara taldeak *Euskal Ekimenak* programaren barruan.

**12:00etan, plazan.****ETXARRI ARANATZ ZinUEMA.**

*Lurde magikoa* animaziozko filmaren emanaldia.  
**17:30ean, Etxarri Aranazko kultur etxean.**

**IRURTZUN Aurkezpena eta ipuin kontaketa.**

*Rolihlahla* ipuin ilustratuaren aurkezpena eta ipuin kontaketa Joxe Aldasoro eta Anaiz Igoa egileekin, Aizpea euskara taldeak *Euskal Ekimenak* programaren barruan.  
**18:00, Pikuxarren.**

**LARUNBATA 10****ETXARRI ARANATZ Txakur krosa.**

Scooter, bikejoging eta txakur krosa.  
4 km-tako ibilbidea.  
**17:30ean, kanpinean.**

**ALTSASU Antzerki musikala.**

Collectiu F.R.E.N.E.T.K konpainiaren *Save the temazo* familiarterko ikuskizuna.

**19:00etan, lortia kultur gunean.****IRURTZUN Bertso afaria.**

Bertso afaria Onintza Enbeita eta Josu Sanjurjo bertsolariekin.  
**21:30ean, Pikuxarren.**

**IGANDEA 11****ETXARRI ARANATZ Txakur krosa.**

Scooter, bikejoging eta txakur krosa.  
6 km-tako ibilbidea.  
**09:00etan, kanpinean.**

**ETXARRI ARANATZ ZinUEMA.**

*Lupin III* animaziozko filmaren emanaldia.  
**17:30ean, Etxarri Aranazko kultur etxean.**

**ALTSASU Elkarretaratzea.**

*Euskal preso eta iheslariak etxera.*  
**20:00etan, plazan.**

**ASTELEHENA 12****ALTSASU Elkarretaratzea.**

Pentsio duinen alde.  
**12:00etan, udaletxearen aurrean.**

**LAKUNTZA Hitzaldi-ikastaroa.**

*Conoce el mercado energético: consumo de la luz y gas en los hogares* hitzaldia Victoria Gonzalez eskutik.  
Nafarroako Gobernuak antolatuta.  
**17:00etan, kultur etxean.**

**ALTSASU Literatur solasaldia.**

Liburu dasta: literatur solasaldia Leire Iburguren idazlearekin *Petare: Miren Egigurenen puskak* liburuz. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun eta Euskara zerbitzuek antolatuta.  
**18:30ean, lortia kultur gunean.**

**ASTEAZKENA 14****IRURTZUN Solasaldia.**

*Han ez banengo bezala* liburuaren Slavenka Drakulic' idazleari buruzko solasaldia Amaia Apaolaza itzultzailearekin, Aizpea euskara

taldearen Euskal Ekitaldiak programaren barruan.

**19:00etan, Pikuxarren.****OSTEGUNA 15****ETXARRI ARANATZ DA! Liburu aurkezpena**

Urtzi Leonet idazlearen *Itzalen dama eta Patxi Bakallu* liburuaren aurkezpena Durangoko

Azokaren *Zu non, han da!* proiektuaren barruan.

**19:00etan, Kaxeta liburu dendan.****OSTIRALA 16****ALTSASU Kontzertua.**

Erkudengo Ama Abesbatzaren 40. urteurren Gabonetako kontzertua.  
**19:00etan, elizan.**

**Ezkilaz eskuz jotzea Gizateriaren Ondare Immateriala**

Unescoren Kultura Ondare Immaterialaren Batzordeak, aho batez, erabaki zuen Gizateriaren Ondare Immateriala izendatzea kanpaiak eskuz jotzea. Altsasun ezquila errepika jotzen dutenek pozik hartu dute albiste, Unescoren mundu mailako izendapenak ezquila eskuz jotzea borondatez mantendu eta mantentzen duten kanpai joleen ondare immaterialaren alde lana isila aitortzen duelako. Ospatzeko larunbatean, **12:00etan, errepika joko dute.**



Altsasuko errepika. ARTXIBOA

Zubia dela eta, datorren astean ez da Guaixe astekaria izanen. Hurrengo publikazioa abenduaren 16an izanen da.

guaixe

**JAIOTZAK**

• **Yousuf Hamdi Lehmar**, azaroaren 27an Lakuntzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

# Bazkide

# ZOZ keta

## AZAROKO SARIAK

**1. SARIA**  
Jaione Berenger Plazaola (Altsasu)

**2. eta 3. SARIAK**  
Idoia Satrustegi Ganboa (Lakuntza)  
Idoia Loban Mundiñano (Etxarri Aranatz)  
Asuncion Askargorta Agirre (Olazti)

107.3 FM

# beleixe

**ZUZENEAN 10:00-12:00**  
ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE ENTZUTEKO  
GUAIXE.EUS



ESKELA



## Aittuna Evaristo

Lurrak amiñan ondoan  
goxo-goxo har zaitzala

Felli, Azucena, Asier, Nerea eta Maider  
Etxarri Aranatzen, 2022ko azaroaren 24an

ESKELA



## Evaristo Ansotegui Gildaz

Feliciana Lizarragaren alarguna  
Azaroaren 24an hil zen, 93 urte zituela

—Goian bego—

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi

Etxarri Aranatzen, 2022ko abenduaren 2an

OROIGARRIA

## Borja Ondarra Ondarra

XV. urteurrena

Adiskide bat bazen  
han goiko iturrian  
bere eskuek soinuaz  
bakalaua jotzen zuenak  
Nun hago zein rallytan  
gure kuadrilako piparra  
Portu bazterretan gora  
kurbarik onena aurkitu nahian  
Beti gurekin, Borja

Zure lagunak



## IRAGARKI SAILKATUAK

### LANA/NEGOZIOAK

#### LAN ESKAINTZAK

**Arakilgo Udalak bi lanpostu betetzeko deialdia egin du:** Dinamizazioa soziokulturalaren lanpostua oposizio lehiaketa bidez bete nahi da, eskabidea aurkezteko epea azaroaren 29an amaitzen da eta administrari laguntzaile lanpostua merezimendu lehiaketa bidez, parte hartzeko eskabideak eta dokumentazioa abenduaren 14a baino aurkeztu behar dira Arakilgo udallean.

**Irurtzungo Udalak aiezaina kontratazeko oposizio lehiaketa egingo du:** Gidabaimena, B2 Euskara ziurtagiria derrigorrezkoak izango dira. Parte hartzeko eskabideak abenduaren 10a baino lehen aurkeztu behar dira udallean.

**Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateen lau lanpostu betetzeko oposizio lehiaketak:** Irurtzun aldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak hiru lanpostu betetzeko deialdia egin du. Batetik, gizarte langile lanpostua, lanaldi osokoa eta B mailakoa, euskarazko C1 ezagutza duena. Bestetik, familia langile lanpostua, lanaldi osokoa eta D mailakoa, euskarazko B2 ezagutza duena. Azkenik, bi gizarte hezitzaile lanpostu beteko diru merezimendu lehiaketa bidez, B mailakoak, bata lanaldi osokoa eta bestea lanaldi erdikoa, eta euskarazko C1 eza-

gutza duena. Eskabideak abenduaren 21era arte aurkeztu daitezke Irurtzungo udallean dagoen mankomunitatearen egoitzan.

**Lakuntzako Udalak administrari ofizial lanpostua egonkortzeko deialdia egin du:** Lakuntzako Udalak 2022rako lan publikoaren eskaintza egin du, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuaren barruan. Lanaldi osoko lanpostu baten deialdia egin du udalak: Administrari ofizial lanpostua bete nahi du, C mailakoa, eta euskarazko C1 ezagutza duena. Lanpostu horretan interesa dutenek beraien eskabideak Lakuntzako udalaren otsailaren 1etik aurrera aurkeztu beharko dute.

#### OHARRAK

**Olaztiko Udalaren jakinarazpena:** Lurraren kontribuzioaren aurtengo zerga borondatez ordaintzeko epea zabalik dago ilbeltzaren 5era arte. Udalaren banku-kontuetara transferentzia eginez, 948 012 012 deituz edo [www.olazti.com](http://www.olazti.com) atariaren bidez.

**EGA ziurtagiria eskuratzeko matrikula epea zabalik dago:** EGA probak egin nahi dituztenek matrikula telematikoki formalizatu ahal dute [www.navarra.es](http://www.navarra.es) web orriko Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez, edo aurrez aurre Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Informazio Bulegoan (

Santo Domingo aldapako 8. zenbakian, 8:30tik 14:30era). Matrikula-tasak 26,20 eurokoak (tasa arrunta) eta 13,10 eurokoak (tasa murriztua) izango dira. Matrikula egiteko epea abenduaren 15ean amaitzen da.

**Olaztin elkartasun bilketa eta azoka:** Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Kulturartekotasun zerbitzuak eta Olatzagutiko Udaleko Kultura zerbitzuak eta ludotekak elkartasun bilketa antolatuta dute lehenik eta elkartasun azoka ondoren. Egoera onean dauden objektuak abenduaren 1ean eta 15ean, ostegunak, 09:00etatik 12:00etara, jasoko dituzte Olaztiko kultur etxean, eta azoka abenduaren 18an izanen da, frontoian.

**Etxarri Aranazko Gaztetxokoa zabalik:** maiatzaren 28ra arte egonen da zabalik asteburuetan; larunbatetan 17:00etatik 21:00etara eta igandetan 17:00etatik 20:30era. Gaztetxokoan Lhko 6. maila eta DBH 4. maila bitarteko gazteei zuzenduta dago eta oraindik izena emateko aukera dago. Matrikula ordaindu behar da. Informazio gehiago nahi duenak udalera jo dezake edo 606 239 008 telefonora hots egin dezake edota [kultura@etxarriaranatz.eus](mailto:kultura@etxarriaranatz.eus) helbide elektronikora idatz dezake.

**Guardetxeko argazkiak biltzeko deialdia:** Lakuntzako Zabalarte Elkartea Aralarko Guardet-

xe agertzen diren argazkiak biltzen dabil, eta erakusketa bat egin nahi dute "Guardetxe proiektuaren egoera eta egin daitezkeen hurrengo ekintzei buruz hitz egitea" du helburuarekin. Halako irudiren bat duenak udalera bulego ordutegian joan daitezke argazkia eskaneatuko dute eta jabeari bueltatuko diote momentuan bertan.

**Adur rol jolasa euskaraz eta doakoa:** Telegram bidez jolasten den rol joko bat jarri du martxan Eneko Azedok. "Adur - Azken erronka" Euskal Erdi Aro mitologikoan girotuta dago, Iruñetik hasi eta Euskal Herri guzitik bidaiatzeko aukera ematen du, izaki mitologikoak aurkitu eta abenturak biziz. Telegram bidez esteka honean sar zaitezke: <https://t.me/+ANOUJSCihsOM210>

**Arropa bilketa:** Baduzu erabiltzen ez duzun arroparik, eta ez dakizu zer egin? Arakilgo udalaren

arkupean bilketa gune bat irekitzera goaz. Hila-beteko lehen azoka egunean, astearteetan, 11:00etatik 13:00etara. Errotxapean dagoen Elkarri Laguntza Elkartek duen egoitzara eraman-go dugu, bilketaren bihar ramunean. Itxipuru Taldea 620 254 230 eta Mank Anitzartean 648 070 710 antolatuta.

**Lakuntzako jendeari Gaztetxokotik:** Gaztetxokoak lakuntzarrei jakinarazi dienez, etxean erabiltzen ez dituzten eta gaztetxokoa erabilgarriak izan daitezkeen objektuak hara eraman ditzakete. Kiroletako materiala, mahai jolasak, eskulanetarako materiala, etab. Gaztetxokoa Uriz kalean dago eta larunbatetan eta igandetan 16:30tik 20:00etara egoten da zabalik, orduan eraman daitezke gauzak.

**Bakaikuko Jubilatuko elkarteko bazkide egiteko aukera:** Hiru Haitz Jubilatuko elkartek iraila-

ren 11n egindako bileran bere egoitzan herrian erroldatuta dauden herriko jubilatuek sar daitezkeela erabaki zuen, sarrerarik ordaindu gabe. Horrekin batera bazkide berriek hileko kuota besterik ez dituzte ordaindu beharko. Bazkide egiten interesa dutenek urte hasiera baino lehen zuzendaritzako kideekin harremanetan jar daitezke.

**Konposta eskuragai:** Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuak jakinarazi du edonor har dezakeela konpost Arbizuko Utzuberi EKOguneko konpost plantatik. Astegunetan 08:00etatik 15:00etara joan daitezke. Nondik hartu jakiteko zerbitzuaren bulegotik pasa behar da. Zakuak eramatea gomendatzen da. Konpost gurdikadak ere eraman daitezke.

[iragarki@guaxe.eus](mailto:iragarki@guaxe.eus)  
[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

### IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

### ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaxe paperean eta guaxe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

### ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo [eskelak@guaxe.eus](mailto:eskelak@guaxe.eus)

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€ prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AGUÁ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU ETXARRI ARANATZ  
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

IRACHE  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 📧 @Grupolrache
- 📱 Grupolrache
- 🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



# "Sakanan bertsolariak bagara eta bagaude"

**IDOIA GRANIZO ETA EKAIN ALEGRE BERTSOLARIAK**

Altsasuko bertsolariak Sakana Hegan Tour bertso saio tematikoan parte hartuko dute gaur. Sakanan bertsolaritza gehiago sustatu behar dela uste dute

**Eneida C. M. eta Erkuden R. B.**

ALTSASU

Sakana Tour Hegan bertso saio tematikoa egingen dute gaur; abenduak 2, ostirala, 19:30ean, Urdaingo gaztetxean. Ondoren, Urdaingo Gazte Asanbladaren pintxo potea izanen da. Bi sakan-darrek parte hartuko dute: Ekain Alegre eta Idoia Granizo. Bikoteka ariko dira: Endika Legarra eta Ainara Ieregi, Alegre eta Sarai Robles, eta Granizo eta Peio Ardaiz; eta gai jartzaileak Jone Rubio altsasuarra eta Yasmine Khris izanen dira.

**Bikoteka ariko zarete, rolak izanen dituzue... Formatua gustuko duzue? Berritza beharrezkoa da?**

**Idoia.** Bai. Guztiarekin oso gustura sentitzen naiz. Hau ere guk geuk geuretik eta geuretzako sortua izan da, Iruñean eraturako Bertx(h)ori sariketaren harira. Berrikuntzak beharrezkoak dira, Bertsolari Txapelketa Nagusian bezala, baita gurean ere. Niri asko gustatzen zaizkit esperimentatzeko plazak eta esanen nuke Urdainek oso gustura hartuko duela bertso saioa. Mimo handiz prestatua izan da. Ea Sakanan ohartzen hasten garen: bagarela eta bagaudela...

**Ekain.** Jone eta Yasmine ari dira dena prestatzen. Laban Bertx(h)ori egin genuen, eta horrelakoa zen, tematikoa, bakoitzak paper batzuen eta historia jarraitu behar dugu. Niretzat beharrezkoak dira, bestela estankatuta gelditzen gara betiko formatuan; bertso afariak dela betiko bertso plaza dela. Azkenean, gazteak, baita helduak ere, bertsolaritza erakartzeko horrelakoak beharrezkoak dira. Iruñean halakoek sekulako erantzuna izan dute publikoan. Lekuak bete dira eta jendeak txalotu du. Gustatu zaie eta batez ere jende gaztea izan da.

**Bertsolaritza jantzen jarraitzen duzue? Non?**

**I.** Irurtzunen batzen gara Nafarroako hainbat bertsolari entre-



Ekain Alegre eta Idoia Granizo Mintzodromoan gaiak jartzen. ARTXIBOA

## "BERTSO SAIO DESBERDINAK BEHARREZKOAK DIRA GAZTEAK ETA ABAR ERAKARTZEKO"

natzeko, baina janzteko beste hainbat jarduera ere beharrezkoak dira. Kantatzen hasi aurretik burua elikatu behar da.

**E.** Irurtzunen elkartzeko gara, Idoia eta biok hemen Altsasun bakarrik geundelako eta Irurtzunen bertsolariak biltzen ziren eta Nafarroako txapelketaren harira joatea erabaki genuen. Jende gehiago elkartzeko hasi da. **Zein da bertso eskolen osasuna Sakanan?**

**I.** Osasuntsu daude, nahiz eta ez den erraz azaltzen. Hezkuntza arautuan ibiltzen diren irakasleek eta bertso eskoletakoek izugarritzko lana egiten dute, konpentsatzeko bailara mailan egiten ez dena, ez herritar bezala, ez antolakunde edo kolektibo bezala, eta are gutxiago erakunde publiko bezala. Bertso eskolak eta bertsolaritza orokorrean ikusezinak dira Sakanan.

Hainbat gazte eta haur dabilta astero bertsoan haien borondatez, inguruan batere inputik jaso gabe, eta harrigarria da. Hor eragin behar da, etorkizun hori bermatu, ikasle hauen motibazioa indartu, ereduak sortu eta bertsoan jarrai dezaten bultzatu.

**Urte honetan nahiko plaza izan dituzue?**

**I.** Nahikoa askiren zentzuan ez, noski. Bertsolariaren arabera ere bada. Neure kasuan, aurten saioak izan ditut, baina ez bereziki beste urte batzuetan baino gehiago. Ez dut sentsazio hori izan berez. Aipatzekoa iruditzen zait saio horietako asko guk sortuak izan direla, ostiraleko saioaren antzekoak.

**E.** Aurtengoa nahiko urte ona izan da. Nahiko plaza izan ditut. Kontua da denak kanpoan izan ditudala, Sakanan ez dut batere izan. Ikusi dugu Sakanan ez dela bertsolaritza sustatzen, eta ez dakigu zergatik bertso eskola egoera onean daudelako eta gu ere hor gabiltzalako. Nahiko jende gaude, baina gero hori ez da islatzen plazan. Agian jendeak ez du ezagutzen bertsolaritza erakunde Sakanan.



BAZTERRETIK

HODEI ALEGRE GIL

## Non zaude Ska?

A ze garaiak haiek, Betagarri kotxean, Skalariak tabernako baffleetan edota Vendetta leku guztietan. Orain aldiz, ezin dugu ska erritmorik inon aurkitu, desertu bihurtu da duela urte gutxi oihana zena. Arrazoiak nonbait egon behar luke, baina pentsatzen jarri bezain pronto tabernako tekno musikak gortzen nau. Zartako-k-ren abesti batean esan bezala: "Zer gertatzen ari da Euskal Herriko panorama musikalean? Patxangeoa eta tekno-kaka modan daude ala?".

Skaren desagerpena errealitate bat da jada, azken hamarkadan biga-bost talderen joanarekin ez dira berriak etorri eta jarraitzaileek horren aurrean ez dute ezer egin. Horren partez euskal tekno eta reggaetoi berriak sortzen ari dira, hori aro aldaketa da, eta ezin zaio ezer egin patuari. Baina arraroa da, noski, Skari hesirik jarri gabe ezerezean joatea. Skarekin hasi eta jamaikar sustraituarekin eman diote etorkizuna Skabidean-ekoek aldiz, rocksteady eta reggae erritmo



ez hain entzunak euskal gazterian sartu eta arnagune topa dezakegu bertan skaren gaurkotasan falta sentitzen dugunean.

Beste alde batetik ere topatzen ditugu des-skazazioak (ska kantak pop-rockera pasatzea). Horietan errege Skakeitan ditugu, ez horren urrun ETS, eta beste hainbat aipatuko ez ditudanak.

Etorkizunean zer datorren inork ezin du jakin, indartze bat izan dezake genero honek edo heriotza, lapida eta guzti. Musika baino gehiago da umeak ginela gedar edo garrasi egiten genuen moduan, orain mendiko botak eskegi ditugu, "denak arazoak izan arren Ska beti ez baita dantzatzen".



UTZITAKOA

## Haize Berriak eta zaharrak

Azaroaren 22an Santa Zezilia musikari zaindariaren eguna izan zen, eta ospatzeko Sakanako bandak kide berriei ongietorri kalejira egin zien Lakuntzan, Iturmendin, Olaztin eta Altsasun. Aurten berezia izan da bandaren 25. urteurrenaren harira bandako kideak izandakoek parte hartu dutelako ere, guztira 55 bat musikari aritu ziren.



Erkudengo Ama Abesbatza hastapenetan. UTZITAKOA

# 40 urte harmonia onean

Altsasuko Erkudengo Ama Abesbatza 1982. urtean sortu zuten eta sasoi onean iritsi da heldutasunera. Koro anitza eta irekia da, eta aniztasun hori erreperitorioan ere ikus daiteke. Abenduaren 16an kontzertu batekin ospatuko dute urteurrena

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU  
1982. urtean abestea gustatzen zitzaizen altsasuar talde batek abesbatza bat sortu zuten eta Ulaiarren dagoen ermitaren eta ama birjinaren izena hartu zuten: Erkudengo Ama Abesbatza. Gabriel Alegria izan zen sustatzailetako bat eta abesbatzaren lehenengo zuzendaria. 40 urte pasa direnean, korala sasoi onean dagoela esan du Puri Altzelai Iriarte abesbatzako kideak.

Urteurren borobila ospatzeko abenduaren 16an, ostirala, Gabonetako kontzertua berezia emanen dute Altsasuko elizan. Lau hamarkadatan abesbatzako kideak izandakoak eta zuzendariak gonbidatu dituzte, "nolabait parte hartzeko; ez dugu nola, agian sorpresaren bat egongo da". Besteak beste, Enrike Zelaia, Josetxo Lunbreras, Itziar Maiz, Erkuden Ezeolaza, Ainhoa Be-

ramendi, Felipe Larrea eta Carlos Gorritxo musikariek parte hartuko dute. Eguberrietako kontzertua denez gabon kantak interpretatuko dituztela azaldu du Altzelaik, "baina mota askotako kantak izanen dira ere".

"Gure abesbatza pentsaera eta izaera desberdinetako pertsonak osatzen dute, eta abesbatza berez ez da entitate erlijioso bat; irekia da. Baina eliza aukeratzen dugu akustikagatik. Beste gauza bat da elizan kantatzea". Elizan "oso akustika ona" lortzen dela azaldu du Altzelaik, eta nahiz eta Iortia kultur gunean

**ABESTEA GUSTATZEA ETA "BELARRIA" IZATEA DIRA KOROAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

ere ongi kantatzen duten, "soinua lehorragoa ateratzen da; nik uste gortina potolo horiek soinua jaten dutela". Horregatik eliza kantatzeko "toki aproposagoa" ikusten dute.

## Gazteak

Duela 40 urte Gabriel Alegriaren zuzendaritzapean jarri ziren zenbait abeslari. "Ni momentu horretan ez nengoen abesbatzan, baina argazkiak begiratuta jende gaztea zegoen". Hogei kide baino gehiagorekin hasi ziren. Alegriak zuzendaritza utzi behar izan zuen eta Sara Salazar eta Lourdes Matxo izan ziren zuzendariak. 1997. urtetik Inma Arroyok du koroaren zuzendaritza, eta tartean ere Mila Salgado izan zen gidaria, baita, tarteka, Felipe Larrea eta Carlos Gorritxo ere.

Altzelai 2000. hamarkadaren hasieran sartu zen. "Musika ikasten ari nintzen eta gitarra irakasleak esan zidan komenigarria zela abesbatza batean kantatzea eta animatu nintzen Inmari esan nion ez nekien aproposa izango ote nintzen abesbatzan kantatzeko, niri gustatzen zitzaidala baina ahotsagatik eta ez nekiela. Esan zidan gustuko eta belarria izanik nahikoa zela. Denak ongi-etorriak direla". Lau hamarkadatan jendearen joan-etorriak normalak dira, "batzuk adinagatik utzi behar izan dute, baina izan dira batzuk 80 urte baino gehiagorekin hor jarraitu dutela, Jose sakristaua, esaterako".

Adin guztietako pertsonak osatzen dute koroa. "Jendea ilusioarekin hasten da, baina konpromezu pixka bat eskatzen du eta utzi behar izaten dute bizitza honetan gauza asko ditugulako". Gaur egun, "pozik" daude abeslari berriak sartu direlako, eta, batez ere, gizonezkoak dira. "Normalean emakumeekin ez da arazorik izaten, baina gizonak beti gutxiago izan ohi dira. Orain, atzera begiratzen dut eta jende asko dago". Altzelai hasi zenean "bakarrik" bi baxu, gizonezkoek egiten duten ahotsa, zeudela esan du.

Koroan emakumezkoek sopranoak eta kontraltoak dira; sopranoek erregistro eremu agudoago bat egiten dute eta kontraltoek grabeagoa. Gizonezkoetan tenoreak eta baxuak daude, tenoreak agudoagoak eta baxuak grabeagoak. Abesbatzan parte hartzeko abestea gustatzea eta belarria izatea baino ez da behar, "eta konpromezu pixka bat izan; asteen behin elkartzeko gara, ez da gehiegi".

## Erreperitorioa

Denetarik abesten du Erkudengo Ama Abesbatzak. "Erreperitorio sakroa dugu, kanta erlijiosoak; erreperitorio euskaldun bat, oso gustuko ditugu euskal kantak eta saiatzen gara erreperitorioan beti sartzen; folklorea, ezagunak... Rosana, Pablo Milanes, Victor Jara... Deneta-

**ERKUDENGO AMAK LAU HAMARAKADA BETE DITU ETA ABENDUAREN 16AN OSPATUKO DU**

rik". Altzelaiari pertsonalki Errusiako eta Europa Ekialdeko kantak "izugarriak" iruditzen zaizkio; "erlijiosoak, baia izugarriak". Normalean zuzendariak kantak proposatzen ditu eta abesbatzako kideekin batera erabakitzen dute erreperitorioan sartu edo ez.

Pandemiaren aurretik astean bitan elkartzeko ziren entseatzeko: astelehenetan eta ostegunetan. Urtean zehar zenbait kontzertu eskaintzen zituzten, eta kolaborazioak egiten zituzten ere. Pandemiarekin abesbatzaren jarduna zenbait hilabetez eten zuten, eta pixkanaka hasi ziren martxan. Orain astelehenetan elkartzeko dira, baina abenduaren 16ko kontzertuaren prestaketekin ari direnez, zenbait ostegunetan entseguak egiten ari dira ere. "Saiatu behar gara ere horrenbeste lana ez izaten. Urtero esaten dugu kontzertu jakin batzuk egingo ditugula eta gero deitzen digute eta ez dakigu ezetz esaten". Gustura aritzen dira herriko zein kanpoko ekitaldietan parte hartzen ere.

## Bidaiak

Momentu onak gogoratzeko orduan "izugarriak" izan direla goraiatu du Altzelaik. "Gehien bat bidaiak egin ditugunean. Oso bidai politak egin ditugu". Momentu horietan sortu den "giroa" nabarmendu du abeslariak, baita jende asko eta kultura desberdinak ezagutu dituztela ere. Rota, Montabanc, Medina de Pomar, Euskal Herriko herri asko, Argentina, Ingalaterra, Herbehereak... "Harreman oso politak sortzen dira, denboran mantentzen direnak". Horietako bidai asko trukean etorri dira Altsasura. Bereiziki Argentinarekin egin zuten harremana askori "bihotzean" gelditu zitzaizela esan du.

"Momentu txarrak gutxiengoak izan dira. Agian arazoak sortzen badira, baina ez da oso ohikoa". Abesbatzan mota askotako pertsonak daudela azaldu du Altzelaik; pentsaera "oso desberdina" duten pertsonak; "baina azken finean errespetu handia dago eta oso ondo moldatzen gara". Hori da hain zuzen abesbatzak erakarri zuena, "hasieran sartu nintzenean ez nuen nire burua ikusten, baina giroa ezagutu nuenean eta ni errespetatzen nindutela ikusi nuenean... oso gustura nago".





Azokaren aurkezpena. DA!

## Durangoko Azoka Sakanara iritsiko da

'Zu non, han da!' programaren barruan bi aurkezpen izanen dira, hilaren 15ean eta 20an

SAKANA

*Eztanda!* leloa du 57. Durangoko Azokak. Abenduaren 7tik 11ra arte izanen da Bizkaiko hiriko Landako Gunean. 248 salmahai izanen ditu, 176 parte hartzaileekin eta nobedadeen artean 689 liburu, 141 musika produktu, 46 aldizkari eta bestelako 54 egonen dira. Sakanako zenbait artistek ere euren lanak aurkezten joanen dira, baina aurten Sakana bertara joan ez ezik, Azoka ibarrera etorriko da *Zu non, han DA!* egitasmoarekin.

*Zu non, han DA!* proiektua abenduaren 12tik aurrera hasiko da, Azoka amaituta, eta bertan salgai egonen diren hainbat nobedade Euskal Herriko liburu dendetan eskuratu ahal izanen dira. Guztira, 132 saltokik parte hartuko dute eta lehenengo aldiz liburu aurkezpenak egingen dira, guztira, 45 liburu dendatan egingen dira aurkezpenak eta horien artean Sakanan bi egingen dira: abenduaren 15ean, osteguna, 19:00etan, Urtzi Leonetek *Itzalen dama eta Patxi Bakallu* liburu aurkeztuko du, Kaxeta liburu dendan eta abenduaren 20an, asteartea, Asisko Urmenetak *Amaiur! Libera State* lanaren aurkezpena egingen du Altsasuko Iortia kultur gunean.



Leire Ibarburen idazlea. UZTARRIA.EUS

# Emakumezkoen beste bizimodu batzuk

Leire Ibarburen idazleak Miren Egigurenek Venezuelako bititutako pasarteak 'Petare: Miren Egigurenen puskak' liburuan jaso ditu. Abenduaren 12an, astelehena, idazlearekin solasaldia izanen da Iortia kultur gunean

**Neida C. M. eta Erkuden R. B.**

ALTSASU

Sakanako Mankomunitateko Berdintasun eta Euskara zerbitzuek antolatuta Liburu dasta: literatur solasaldiak idazleekin izanen da abenduaren 12an, astelehena, 18:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean. Leire Ibarburen izanen da gonbidatua eta *Petare: Miren Egigurenen puskak* liburuaren aurkezpen eta solasaldia egingen du azpeitiarrak. Liburuak Venezuelako Petare auzoan urte luzez bizi izandako bidaniarraren bizitzaren pasarteak kontatzen ditu. Txalaparta argitaletxeak eta Emagin elkarrekin argitaratu dute liburuak.

Miren Egigurenen bizitzaren hainbat puskei letrak jarri dizkio Leire Ibarburen idazleak. "Liburu honen sorburua beste liburu baten baitan dago, Miren Odriozola izeneko emakume baten bizitza kontatzen duen liburu, *Laura esaten zioten*". Odriozola El Salvadorren gerran ibili zen eta Azpeitiko da, "nire

herrikoa". Haren bizitza kontatzen duen liburu argitaratu ondoren, beste norbaiten bizitzaren inguruan idatzi behar zuela esaten zioten Ibarbureni, "eta berak esan zidan bazeukala beste lagun bat Venezuelako eta Miren Odriozolak Miren Egiguren aurkeztu zidan".

Tolosan bisitak izaten ziren eta "pixkanaka elkar ezagutzen nik aurretik ez nuelako ezagutzen. Entzunda neuzkan berari buruzkoak, baina elkarrizketa pila bat egin genituen". Hasiara batean protagonistari zenbait gaiei buruz hitz egitea kostatzen zitzaion, "istilu oso gogor baten ondorioz gaixotu zen eta itzuli zen". Bisitaz bisita hitz egitera animatuz joan zen, eta izandako elkarrizketen inguruan hasieran koaderno batean eta ondoren ordenagailuan idazten zuten Egigurenek ere. "Dokumentu horiek hango bizipen guztiak ordenatzen lagundu dit". Petare Caracaseko auzo bat da, eta kontakizunean bertako bizimodua kontatzen

du liburuak, "horregatik izenburua auzo horren izena da". Odriozolak bisitetan laguntzen zuten, eta horregatik ere presentzia du liburuan.

**Pasarteak**

"Hasieratik helburua zen liburu bat sortzea. Egia da berak argitaratu zuenean aurkeztu genuen eta jende pila bat etorri zen, eta berak ez zuen hainbeste espero. Omenaldi tonua hartu zuen". Herriaren aurrean aitortza izan zela esan du Ibarburenek. "Oso pozik zegoela esaten zuen eta niretzako ere pozgarria izan zen".

Bidaniako Arretxe baserrian jaio zen Miren Egiguren eta hamahiru senidetan hirugarre-

**"LIBURUEKIN BULTZATU NAHI DUT ONDOAN DITUGUN EMAKUMEAK AITORTZEA"**

na zen. Oso gaztetan baserrian zeuden haurrak kontuan hartuta, Donostiara nescame joan zen eta bertan nescame, estanko batean eta lanbide desberdinak izan zituen. 16 urte zituela anai bat istripuz hil zitzaion eta istripu hori "kolpe handia" izan zen Egigurendako. "Bizitzaren inguruko galdera asko sortu zitzaizkion eta bere bizitzarekin zerbait egin behar zuela pentsatu zuen". Donostian bizi zirenean hainbat kontu politikoetan eta eliza bueltako kontuetan sartzen hasi zen, eta bere inguruan ikusten zuten lagunak nobioekin eta umeak izateko ideiarekin zuekela, "baina berak esaten zuen horrek ez zuela betetzen eta hemendik alde egiteko beharra sentitzen zuela". Elizako elkarrekin batekin misiolari joan zen Venezuelako eta Kolonbia artean dagoen Guajira lurraldera.

Guajiran herri indigenak bizi dira eta bertan katekesia ematen zuten Egigurenek, "ikusten zuten berarekin mojak egin zutela egingen zuela eta ez zitzaion gustatzen. Berak ez zuen hori nahi". Arduradunekin hitz egin zuen eta alfabetizatze eskolak ematen hasi zen. Hiru urte pasa zituen Guajiran eta lan asko egin zituen. "Erreferentzialtasun handia hartu zuela pentsatu eta Euskal Herrira itzuli zen". Baina hemen burua Venezuelako zuten eta itzuli zen. "Petare auzoan 40 urte inguru pasa zituen". Liburuak bertan bizitakoak jasotzen ditu. "Gau batean agian gazte bat tiroz eskuetan hiltzen zaizu eta beste batean erditze batean laguntzen duzu". Aldi berean, Egigurenek idazten eta irakurtzen ikasteko metodo bat asmatu zuen. "Bitxia da horrelako egoera gogor batean nola Mirenek hainbat proiektu atera zituen, beti bertako emakumeekin elkarlanean". Jon Garañok metodo horren inguruko film labur bat egin zuen ere. Egiguren emakume azkarra, argia eta indartsua dela esan du Ibarburenek.

Liburu hauen bitartez "gure iruditegia emakumeek izan ditzaketan bizimoduaren inguruan" zabaltzen dela esan du Ibarburenek. "Beste bizimodu batzuk erakustea du helburua". Haiekin ere "ondoan ditugun emakumeak entzutea, jasotzea eta aitortzea" nahi du. "Niretzat inportantea zen beraiek bizirik zeuden bitartean argitaratzea liburuak, horren emaitza jasotzeko".

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

Ainhoa Ramirez de Alda Azurmendi irakasle eta idazle altsasuarrak *Galtzerdi erdi* bere lehenengo liburua kaleratu du. Gabonetako galtzerdi baten istorioa kontatzen du eta desberdintasunen gaia jorratzen du. Ilustrazioak Pauls Vind ilustratzailearenak dira eta Babidibu argitaletxeak kaleratu du. Azaroaren 21etik aurrera liburu dendetan eros daiteke eta laster Altsasun aurkezpena egingen duela aurreratu du egileak, Arkatz liburu dendaren laguntzarekin.

**Nola sortu zitzaizun proiektua?**

Idea hau nahiko bitxia izan da. Sare sozialen munduan baliabideak partekatzen ditut eta nire zaletasuna materiala sortzea da, eta horretan nengoen; materiala sortzen nengoen eta askotan sortu izan ditut horrelako ipuinak gelan landu ahal izateko eta desberdintasunen gai hau pendienter neukan. Ipuin txiki bat idatzi nuen. Etxean hala nola editatu nuen eta lagun batzuei erakutsi nien, alde batetik, lankideei beraiekin ere lantzeko eta, bestetik, zenbait lagunei. Lagunek esan zidaten oso ideia ona zela eta argitaletxeren batera bidaltzera animatu behar nintzela. Horrela sortu zen. Animatu nintzen eta argitaletxe batek baiezkoa eman zidan.

**Protagonista Gabonetako galtzerdi bat da. Zergatik?**

Bitxia da hori ere, bai. Hemen ez daukagu ohitura handirik Gabonetako galtzerdiak jartzeko eta nik etxean momentu horretan ez nuen, baina Eguberriak gertu zeudela eta desberdintasunen gaia lantzeko zerbait desberdina behar nuenez, protagonista bihurtu nuen.

**Zer kontatzen du?**

Galtzerdia gainontzeko galtzerdien kutxan bizi denez, desberdin sentitzen da eta baztertu egiten dute. Hortik dator istorioa.

**Beste pertsonaia bat dago. Zer garrantzia du istorioan?**

Amelia Galtzerdi erdiren jabea da. Ameliak bere amarekin egiten duen elkarrizketa batean aipatzen du Gabonetako galtzerdi bat dela, eta orduan Galtzerdi erdi konturatzen da desberdina izan behar duela. Orduan, ulertzen du eta alde horretatik maitatua sentitzen da.

**Zergatik desberdintasunen gaia?**

Orain Haur Hezkuntzan irakaslea naiz eta garai horretan LH lehen eta bigarren mailan lan

# "Nork bere burua maitatzea transmititzen du liburuak"

**AINHOA RAMIREZ DE ALDA AZURMENDI** IDAZLEA

Gabonetako galtzerdi baten istorioa kontatzen duen 'Galtzerdi erdi' ipuin ilustratua kaleratu du altsasuarrak. Desberdintasunen gaia lantzen du liburuak



Ainhoa Ramirez de Alda 'Galtzerdi erdi' liburu eskuetan duela.

egiten nuen eta egunero ateratzen den gai bat da; ikasleen harremanetan baztertua eta gutxiestea. Orduan, nik uste dut gure gorputza maitatzen eta gu pertsonak bezala maitatzeko desberdintasunak maitatzen ikasi behar dugula. Hortik abiatu nintzen.

**Balio implizituak ere lantzen ditu.**

Norberak bere burua maitatzea daukan ezaugarriekin; hori da garrantzitsuena eta transmititzen den argiena. Beste alde batetik, galtzerdi guztiek ea bikotea duten eta hortik abiatuta bikoterik izan behar dugun, ez, bai, zergatik... Baita zergatik galtzerdi batzuk marradunak diren, beste batzuk txikiagoak eta abar. Ezaugarriak.

**Nolakoa izan da prozesua?**

Proiektua aurreko urteko abendurako eginga neukan. Ondoren, argitaletxe desberdinei bidali eta Babidibu argitaletxeak baiezkoa eman zidan abenduaren bukaera aldera. Urtarrilean hasi ginen. Kontratu moduko bat urtarrilaren erdialdean sinatu nuen eta ilustratzailearen bila hasi ginen. Ni ez naiz ilustratzailea eta orduan beraiek zenbait aukera eman zizkidaten eta Pauls

**"DESBERDINTASUNEN GAIA LANTZEKO ZERBAIT BEHAR NUEN; GABONETAKO GALTZERDIA"**

Vind Instagrama eman zidaten eta elkarlanean hasi ginen. Toledoko meska bat da, eta istorioa erdaratu behar izan nion, ondorioz, pixka bat luzatu zen. Azkenean, urrian inprentara bidali zuten.

**la urte batez sekretua gordetu behar izan duzu.**

Pare bat lagunei, batez ere animatu nindutenei, proiektua mar txan zegoela esan nien. Luzea izan da. Gorabeherak egon dira; emozioa goi-goian lehenengo ilustrazioak iritsi zirenean eta gero behera pixkatxo bat denbora pasatzen zenean. Argitaletxeak esan zidan gaiagatik Gabonetarako egon behar zuela, eta azken hilabetetan urduritasun pixka bat izan dut.

**Ilustrazioak horrelakoak irudikatzen zenituen?**

Nahiko burugogorra naiz eta hasieratik buruan ideia bat nuen. Egia da Paulsen lana ikusi nuen bere estiloak nirearekin bat egiten zuela ikusi nuela, orduan, berarekin lan egitea oso erraza izan da. Berak bidaltzen zizkidan ideiak eta nik zerbait zuzentzen nion; orokorrean oso ongi moldatu gara. Nik uste euskara zerbait gelditu zaiola...

**Zer sentitu zenuen liburu eskuetan izan zenuenean?**

Pasada bat izan zen. Distantzian egin dut lan, argitaletxea Andaluziako eta ilustratzailea ere ez zegoen ondoan, beti epostaren bidez edo artxibo digitalen bidez egin dugu lan. Oso desberdin ikusi nuen proiektua pdf batean eta gero fisikoa. Oso polita iruditu zitzaidan. Negar egin nuen.

**Andaluziako eta euskaraz?**

Ez naiz idazle bakarra. Argitaletxe honek hizkuntzak zaintzen ditu: galiziera, katalana, euskara... aukera desberdinak ditu. Gehiengo gaztelaniaz da, baina hizkuntzak pila bat zaintzen ditu, zentzu guztietan. Niretako hizkuntzak garrantzia handia zuen, nik euskaraz lan egin behar nuen. Album ilustratuetan balio implizituak lantzen dituzte ere. Alde horretatik ere asko gustatu zitzaidan. Haiekin hainbat egitasmo egingo ditut ere.

**Altsasun aurkezpena egingo duzu?**

Aurreratu dezakden gauza bakarra da, Arkatz-en laguntza izango dudala. Bestetik, liburuarekin argazki bat egiten badute eta Instagramen @ainhoaren.txokoa aipatzen badute, sorpresatxo bat irabaz dezakete.



# "Eskultura plurala egin behar genuen"

Ormaiztegin herriko txirrindularitza omentzeko eskultura mustu dute, eta diseinua etxarriarra da: Santi Ijurko eskultoreak egin du irudia. Herriak txirrindularitza eta txirrindulariekiko duen "harrotasuna" adierazten du

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A.

## 1 Nola sortu zen eskultura diseinatzeko aukera?

Ormaiztegi Udalak deitu eta proposamen bat eskatu zidan. Proposamena bidali eta oso ongi onartu zen. Hortik aurrera mar txan jarri zen proiektua.

## 2 Diseinua egiteko askatasuna izan zenuen? Zeintzuk ziren baldintzak?

Askatasun osoa izan nuen, baldintzak ziren txirrindularitza-rekin eta herriarekin harremana izatea.

## 3 Zertan oinarritu zinen?

Ormaiztegi herriak txirrindularitza praktikatzan duten bertako biztanleekiko duen harrotasunean oinarritzen da eskultura, maila guztietan. Ormaiztegin bizikleta maila handia ezagutu dugu hainbat maila eta estilotan; ziklo krosetan, errepideko txirrindularitza edo zikloturismoan. Eskultura plurala egin behar genuela konturatu ginen. Normalean, txirrindulari bakar bati zuzendutako eskulturak ikusten dira. Kasu honetan, txirrindulari taldea handia da, bai gizezkoena bai emakumezkoena. Hiru irudi berdinekin osatzen dute eskultura; androginoak dira, jarduera bat egiten ari dira. Lehiaketa ez da lehenetsi, kirola baizik.

## 4 Zer irudikatzen du?

Ormaiztegi txirrindulariak irudikatzen dituzte irudiek, txirrindulari guztiak, inor bereizi gabe; horregatik dira berdinak. Zubi ezagunaren erreplika baten gainean muntatuta daude. Zubiak herria ordezkatzan du bakarria delako eta herria harro egoteko beste arrazoi bat delako. Koka-lekua plaza berria dagoen tokitik nahiz errepidetik pasatzean



Santi Ijurko etxarriarra eskulturaren mustutzean, Ormaiztegin. GOIERRIKO HITZA

ikusteko planteatu da. Posizioa aztertu dugu, eguzkiak itzalak sor ditzan, eta itzal horiek lurra-rekin bat egitean beste irudi bat sor dezaten. Irudikatu nahi denaren irudi minimalista baina argiak da.

## 5 Zain izan da prozesua? Nola sortu duzu?

Prozesua erraza izan zen. Ormaiztegi jendeak lan handia egin du txirrindulariei omenaldia egiteko, eta hainbat hamarkadako argazkiak atera dituzte; zenbait estatutan txirrindularitza zuzendaritzaren zuzendaritzaren parte hartu duten buruekin, herrian bizi ez den jendearekin, euskal federazioarekin... Kirol horregatik harrotasuna erakutsi digute.

## 6 Proba edo bozeto asko egin zenituen?

Ez. Ideiak hain argi zeudenez, lehenengo zirriborroa egin nuen, eraikuntzan laguntzeko egin den ñabardura txiki batekin.

## 7 Materialak ere zuk aukeratu zenituen?

Bai. Ormaiztegi Caldereria Laukitokik egin du. Uneoro harremanetan egon gara. Irudiak material noble eta puruz eginak dira, eta aire zabalean oxidatzen dira. Airearekin eta euriarekin aldatuko dira.

## 8 Nolako izan zen aurkezpena? Zer sentitu zenuen?

Oso ekitaldi garrantzitsua iruditzen zait. Sentimendu handia eta historia asko izan ziren. Garai desberdinetako argazkiak proiektatu zituzten. Eliteko kirolari askok parte hartu zuten zale gisa: Ormaiztegi txirrindulariak, Xixondik egun horre-

tarako etorri zen Abraham Olano, Euskal Federazioko kideak, Izagirre familia osoa, Alex Aranburu herrikoa ez dena, baina ez zuen galdu nahi kirol horren eta euskal taldeen omenaldia, emakumezkoen taldeko kideak egon ziren, orain txirrindularitzaren maila gorenean daudenak.

## 9 Txirrindularitza zaletasuna duzu? Praktikatzan duzu?

Bueno, noizean behin errepidera ateratzen naiz. Probak telebistan ikustea asko gustatzen zait. Probak hurbilekoak badira, normalean animatzera joaten naiz.

## 10 Aurretik diseinu gehiago egin dituzu?

Ez asko. Alderdi hori duela urte batzuk hasi nuen errealitate areagotuko eta birtualeko masterra egin nuen. 3D mundua ezagutzen hasi nintzen. Guk, SDIn, beti planoan lan egin dugu, gero paperean egiteko. Orain 3Dko gauzak egiten hasi gara, nahiz eta bolumen handiena birtuala den. Egin dugun azken irudia iaz hil zen amaren irudi bat izan da, 3D inprimagailuan egin.

## 11 Eta aurrerago egiteko? Proiektu gehiago dituzu?

Deiren bat jaso dugu. Ormaiztegi herriak berea egin du eskultura, eta horregatik entzunagoa izan da. Gustuko duzunean eta ordezkatzan zaituenean, errazago da horri buruz hitz egitea.

# HASI ZURE EGUTEGIA prestatzen



NEURRI ETA EUSKARRI DESBERDINAK

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

**gk** DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | info@gkomunikazioa.eus  
Foru plaza, 23-1. Altsasu